



Pauso txiki sendoa

Urteetan egindako lanaren emaitza jasotzen ari da Lautadako euskalgintza / 2

LKE



Hizkuntza ohiturak nola aldatzen ari diren ikasten eta ikusten ari dira hainbat talde / 6



Eskualdeko ikuspegia duen jarduna behar dela dio Joseba Legarda euskara teknikariak / 8



Negozioaren araberako laguntza eskatu dute merkataritza eragileek / 12



'Bakarrik taberna batean', normalizatutako indarkeria salatuzeko bideoklipa / 18



Lautadako historian atzera jauzia, Gebaran antolatutako bisitaldi antzeztuen bidez / 20



Euskara, etorkizunera begira

Zailtasunak gaindituta, Euskaraldiak emaitza positiboa izan du Lautadan. Egun batzuetako ariketa baino gehiago, urteetan egindako lanaren emaitza jasotzen ari da Lautadako euskalgintza. Testua: **Erredakzioa.**

Lautadako Euskararen Komunitateak, orokorrean, aurtengo Euskaraldiaren balorazio positiboa egiten du, eta martxotik aurrera bizi izandako egoera berri honen aurrean Euskaraldia antolatu ahal izatea lorpen bat izan dela azpimarratu dute antolatzaileek. Parte-hartze datuak eta ariketa antolatzeko ibilbidea, ez dira hasiera batean aurreikusitakoak izan. Hala ere, Euskaraldiak, beste behin, euskara erdigunera ekartzeko aukera eskaini duela adierazi dute, batez ere, udazkeneko azken hilabete hauetan, eta, bereziki, ariketak iraun duen egunetan zehar.

Jakina da urruntze sozialak eragin diola aurtengo ariketa sozialari eta antolaketa prozesua zaildu duela. Bilerak, bisitak, desplazamenduak, mahai-informatiboak, tailerrak, antolatzaile eta parte-hartzaileen arteko kohesioa, material ezberdinen banaketa... antolakuntzarako funtsezkoak diren baliabide asko ezin izan dira behar bezala bideratu. Egoerari aurre eginez, 2018tik Lautadako antolakuntzan aritzen diren ia 80 lagunek gogotsu jardun dute. Gainera, Lautada koordinatzen aritu den 12 laguneko taldeak, Euskal Herriko antolakuntzarekin batera, egunez egun aldakorra zen egoerara egokitzen asmatu du.

Pandemiak sortutako aldarreak parte-hartzeari eragin dio, eta 2018an baino herritar gutxiagok eman dute izena. Hala ere, egoera kontuan hartuta, Euskaraldiak parte-hartze zabala izan du Lautadan: ariketan 1.004 lagun aritu dira: 584 *ahobizik* eta 420 *belarriprestek* jantzi dute txapa soinean. Horietatik 650 emakumezkoak izan dira, 345 gizonezkoak eta 9 ez binarioak. Izena eman dutenen artean, gainera, 137 lagun berri zenbatu

dituzte, hau da, 2018ko Euskaraldian parte hartu ez zuten herritarrak. Aurtengo berrikuntza nagusia izanik, 71 entitatek eman dute izena *arigune* bezala. Modu horretan, beraien guneetan *ahobizi* eta *belarriprestei* erraztasunak emateko asmoa adierazi duten eragileak ugariak izan dira. Orotara, Lautadako 483 lagunek parte hartu dute *arigune* horietakoren batean, era kolektiboan.

Ariketaren eragina zenbatekoa izan den jakiteko, halere, ikerketaren emaitzak jaso arte itxaron beharko da. Argi dago, harreman kopuru txikiagoa izan dela, eta egunerokoan elkarren arteko tratuan aritzeko aukerak mugatuta egon direla. Oztopoak oztopo, Euskaraldia egin da, eta, egoera honetan egin ahal izatea ez da gutxi.

Argi-ilunak zeruan

Azken urteetan eginiko lanak emaitzak eman dituela agerian geratu da. Euskarak Arabako Lautadan normalkuntzarako pausu nabarmenak eman ditu azken boladan, eta guzti horiek lanean etengabe diharduten eragile eta norbanakoei esker gauzatu dira. Lurraldeak bizi izandako bilakaera horrek eta herritarren gogoak etorkizuna ilusioz irudikatzeko aukera eman beharko luke. Tamalez, ziurgabetasuna nagusitu da azken egunotan, Lautadako Euskararen Komunitateko kideek salatu dutenez.

Iragan abenduaren 7an, Lautadako Euskararen Komunitateko kideek, etorkizuneko lanak bideratzen hasteko egiten ari diren bileren artean, Lautadako EAJko hainbat ordezkariarekin bilera egin zuten.. Ordezkar horiek bileran

2019ko maiatzean Lautadako entitateetan bisitak egiteko formazio saioan parte hartu zuten Lautadako boluntarioek eta Topaguneko kideek. LEK



LEK-eko kideei jakinarazitakoaren arabera, azken hiru urteetan indarrean egon diren hitzarmenak berritzeko asmorik ez dutela adierazi dute. "Etorkizunean Euskaraldiaren antolakuntza lana Kuadrillako Euskara Zerbitzuaren esku utzi nahi dutela argudiatu dute", azaldu du Lautadako Euskararen Komunitateak. Euren esanetan, egoera horrek "hankaz gora" utziko luke azken urteetan euskararen normalizazio lanetan aritu diren eragileen etorkizuna, eta "zalantzas beteriko panorama" irudikatzen dute Lautadako euskalgintzan.

Lautadako Euskararen Komunitateak gogorarazi du antolakuntza honen egituraketa eskualde osoan eta elkarlanean aritzeko xedearekin eratu zela 2017an. Horri esker, 2018az geroztik, beraien inizatibaz sinatu ziren Lautadako 8 udalekin eta Kuadrillarekin Euskaraldia antolatzeke elkarlan-hitzarmenak.

"Gaur egun, Lautadako instituzio publikoek zein eragile sozialek Euskaraldia antolatzen jarraitzeko asmo irmoa izaten jarraitzen dute, inork ez du halakorik zalantzan jartzen. Baina, itxuraz, egiteko modua beste era batera antolatzeke nahia adierazi dute hainbat ordezkari politikok".

Lautadako Euskararen Komunitateak elkarrekin urratzen jarraitu beharreko bidea dela azpimarratu du, eta "nahitaez" erakunde publiko eta eragile sozialen arteko elkarlana adostu beharra dagoela. "Izaera horretako proiektu bat aurrera eramateko lidergoa partekatzea, beharrezko baliabideak jartzea eta Lautadako zortzi udal eta Kuadrillaren arteko adostasun instituzional zein politikoa lortu behar dira", adierazi dute LEK-eko kideek ohar batean. "Lautada osoan, era koordinatuan eta elkarlanean soilik, lortuko da hizkuntza-ohituren aldaketa bat eta Euskaraldia arrakastatsua izatea".

Komunitateko kideen ustetan, instituzio publikoek eta eragile sozialek elkarlanean jarduteak ez du iritzi ezberdinik egon ezin



daitekeenik esan nahi. Eragile bakoitzak funtzio ezberdin bat beteko du, eta bakoitzak bere izaera eta egiteko moduak izango ditu: "Ezberdintasun horiek onartuta aritzeak eta lidergo partekatu bat izateak harreman emankorragoa eskaini dezakeela uste dugu".

Horregatik, Lautadako Euskararen Komunitateak elkarlanaren bidean pausuak emateko borondatea berretsi nahi izan du. "Lautadan, hizkuntza-ohituren aldaketa eta Euskaraldiaren antolakuntza elkarlanean egin beharko da, ez instituzio publiko batzuen lidergoarekin". Ordezkari publikoek eskaera zuzena egin diete, etorkizunera begira lankidetzat sendotu eta adostasuna bilatzeko. ■

Ezkerrean, Dulantziko Euskaraldia batzordeko kideak 2020ko urtarirlean. LEK

Eskuinean goian, Iruraiz-Gaunako herrietako eragileak 2019an. LEK

Eskuinean behean, 2019ko iraillean Burgeluko herrietako eragileak. LEK

DULANTZI BONO

Poza erosketetan eta aisialdian

2020/12/14 - 2021/02/28

Ordaindu / Paga 45€
Erosi / Compra 60€
¡OPARIA! ¡REGALO!
15€

30€ Ostalaritzan
 En hostelería

30€ Merkataritzan
 eta zerbitzuetan
 En comercio y
 servicios

PARTE HARTZEN DUTEN ESTABLEZIMENDUAK / ESTABLECIMIENTOS PARTICIPANTES

EROSKI CITY SUPERMERCADO SUBINARREKA PANADERIA OGIBERRI PANADERIA LA VITORIANA GOXOKI FARMACIA ANGULO (PARAFARMACIA) ESTANCO MUEBLES INIGO CARPINTERIA DE ALUMINIO ALEGRIA-DULANTZI, SL COLCHONES GASTEIZ COLCHONES LEUNAK JON TORRES ESTILISTA	LA CUADRA APOYO ESCOLAR GAUR AUTOESCUELA ARIZNABARRA CARROCERIAS BETIKOAK ESTACION DE SERVICIOS REPSOL ARH MOTOR CLINICA VETERINARIA DULANTZI
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

www.alegria-dulantzi.eus



Susana Lopez de Ullibarri
Barrundiako ekonomatoa

Hasieratik, Barrundiako ekonomatoaren elkarteak apustu sendoa egin du euskararen erabileraren alde. Hamaika urte daramatzate arlo desberdinetan Euskaraldiaren helburu berdinak bultzatzen, eta *arigune* izateak haien filosofia eta egunerokoa baieztatu eta indartu egin ditu. "Erronka guztietan gertatzen den legez, bakarrik ez sentitzea oso garrantzitsua da; komunitate baten parte, gizartearen parte bat izatea eta erronka elkarrekin aurrera eramatea

ezinbestekoa da", azaldu du Lopez de Ullibarrik. Aldi berean, metodologia ezartzea eta hausnartzeko gai izatea ere lagungarria da, haren esanetan, kontuan hartzeko zein neurritan aurrera egin duten euskararen erabileran. "Halako ekimenei esker, kontzienteago gara, eta berehala identifikatzen ditugu bazkide berrien artean nortzuk diren *belarriprest* eta nortzuk *ahobizi*. Gainera, orain arte ausartu ez direnak konturatu dira zein erraza den, behintzat, euskaraz ari direnak errespetatzea".



Hodei del Olmo
Burguko Ingurumen zerbitzua

Burguko Udalean inportantea eta beharrezkoa dela uste dutelako erabaki dute Euskaraldian parte hartzea. Astero teknikariak lanean egoten diren bulegoen solairua *arigunea* izan da. "Eta teknikari gehienok euskaldunok garenez, aproposa zela hausnartu genuen; bai herritarrekin euskaraz komunikatzeko edo aukera emateko, eta baita gure artean hitz egiteko ere", azaldu du Hodei del Olmok. Euskaraldiak agerian jarri ditu euskara, euskaldunak eta euskaldun berriak. "Udalerrian, teknikari eta

biztanle askok erderaz hitz egiteko joera izaten dugu, eta aukera bat da txipa aldatzeko eta euskaraz harremanetan jartzeko". Udaletxeko *ariguneak* euskaraz komunikatzeko abagunea garrantzitsua eskaintzen duela gogoratu du. "Udalean euskara, ez bakarrik alderdi ofizialean, herritarrekiko solasaldietan ere egon behar da. Beraz, etorkizunean ere kontuan hartzeko erabilgarria izango da. 'Burguko ariguneari' eutsi beharko genioke, etorkizunean euskarazko harremanak mantentzeko".



Adeli Fernandez
Dulantziko dantza taldea

Dulantziko dantza taldean euskararen erabilera sustatu nahi dute, eta horregatik erabaki dute, hain zuzen ere, Euskaraldian *arigune* bezala parte hartzea. "Modu horretan, erraztasunak eman nahi ditugu euskara erabiltzeko, eta uste dugu aukera on bat dela gure inguruko jendeak euskara erabiltzeko", azaldu du Adeli Fernandezek. Euskaraldiak Dulantziko dantza taldeari ekarpen handia egin diola esan du, eta aitzakia on bat izan da denak batera

egun batzuetan ahalegin bat egiteko. "Gainera uste dugu baliogarria dela gure arteko harremanetan euskararen erabilera ohitura bihurtzeko". Baina, ez bakarrik dinamika martxan egon den egunetarako; etorkizunean ere, Euskaraldia behar dutela esan du. "Zerbait praktikoa da, egin behar da, bakoitza eroso sentitzen den rolean, baina egin behar da. Oso lagungarria da horrelako zerbaitetan parte hartzea; euskaraz hitz egitera animatu egiten gaitu".



Marisol Iglesias
Iruraiz-Gaunako Udaleko bulegoa

Iruraiz-Gaunako Udalaren erabakia izan da Euskaraldiaren bigarren edizioan parte hartzea entitate gisa, herritarrei udal bulegoko harreran euskaraz egiteko aukera emateko helburuarekin. Euskaraldiaren ekimenari esker, entitateak udal langileei aukera bat ematen die euskaraz egiteko lan eremuan. "Niretzat oso inportantea da lanean aukera hori izatea. Nik, adibidez, euskara ikasi nuen eta lanean erabili nahi dut. Izan ere, gurasoekin galegoz hitz egiten dut, nire etxean gaztelaniaz

hitz egiten dugu, txikitik Alemanian bizi izan nintzen, eta orain lanean euskara erabili nahi dut", aipatu du Marisol Iglesiasek. Etorkizunean Euskaraldian hasitako dinamikak lagungarriak izango direla uste du. "Dena den, oraindik bide luzea dugu hizkuntza-ohitura aldatzeko. Sarritan euskaraz hasten gara, baina segituan gero erdarara pasatzen gara...". Euskaraz egin nahi arren, bidean zailtasunak agertzen direla dio, eta Euskaraldia bezalako ariketak "oso lagungarriak" dira.



**Iñigo Romano
Erdoñanako
Piztu Elektrikariak**

"Enpresa mailan ere garrantzitsua da euskararekiko konpromisoa adieraztea eta praktikara eramatea, eta horregatik garrantzitsua iruditu zitzaigun Euskaraldia egitasmoan parte hartzea", azaldu du Iñigo Romanok. Lana euskaraz egin ahal izatea, hori posible izatea bideratu nahi dute enpresatik, bezeroari aukera hori eman nahi diote, eta kasu honetan Piztu elektrikariak enpresatik. Sektore honetan ez da ohikoa izaten langileen artean euskara entzutea, eta ariketa sozial handi honi

esker, hori modu batean posible egin daiteke. Ohiturak gutxinaka aldatzeko modua izan daiteke egitasmo hau, Romanoren esanetan, eta beharbada beste modu batera egingo ez luketena praktikan jarri dute Euskaraldiarekin. "Ariketa honek erabakiak hartzera bultzatzen gaitu, euskaraz egitera, eta bezero euskaldun gehiago identifikatzea ere ekartzen du". Aurrera begira, uste dute garrantzitsua dela halako ekimenetan parte hartzea, "enpresetan euskararen erabilerak pisu handiagoa izan dezan".



**Maika B. de Heredia
Aguraingo Maika
Fisioterapia**

Haien artean euskara erabili nahi dutelako parte hartu dute Euskaraldian, eta horregatik erabaki dute *arigune* izatea. Barne *arigune* bat osatu dute lankideen artean, haien hizkuntza-ohitura aldatu eta euskarara eramateko. "Uste dugu inportantea dela pazienteei euskara erabiltzeko aukera ematea, eta haiek jakitea hemen euskaraz egin ahal dutela, langileekin aukera hori izango dutela", nabarmendu dute. Euskaraldiak pauso hori ematen lagundu die, beharbada beste modu batera egingo ez zutena.

"Giro bat sortzen du, aukera bat da gure artean eta pazienteekin ere euskaraz egiteko". Euskarari lotutako irudi bat sortzen laguntzen du halako ariketa sozial batek, eta bezeroek horretan identifikatzen dute entitatea. Haien ustez, dudarik gabe, etorkizunean ere garrantzitsua izango da pausoak ematen jarraitzea, eta Euskaraldia bezalako ekinaldiak antolatzea. "Bidean gaude, horretan ari gara, baina oraindik asko dugu egiteko, eta horrelako ekimen praktikoak behar ditugu".



**Arkaitz Gobantes eta
Alba Muñoz - Araia
Kromletx kooperatiba**

Kromletx kooperatiban, Euskaraldian izena eman dute *arigune* bezala, oso garrantzitsua ikusten zutelako batez ere haien hizkuntza ohiturak aldatzea bazkideen artean. "Euskaraz hitz egin eta ulertzen dugu, baina erabiltzea askotan kostatzen zaigu, eta horretarako lagungarri izan da ariketa sozial honekin bat egitea", azaldu dute. Ingurumen eta landa ingeniari batzen duen kooperatiba da, eta Euskaraldiak ekarpena handia egin diela esan


dute, "ohitura asko aldatu eta euskara geroz eta gehiago erabiltzen lagundu digulako". Aisialdiarekin, hezkuntzarekin eta baso-lanekin lotutako jardueraz gain, aipatzekoa da kooperatiba diziplina anitzeko talde batek osatzen duela, eta hainbat arlo hartzen dituela. Lan hori aurrera eramateko, etorkizunean ere Euskaraldia lagungarria izango dela uste dute, "baina ordurako euskaraz lan egiteko ohitura finkatua egotea espero dugu".



**Lurdes Lekuona
Zalduondoko kultura
elkartea**

Zalduondoko Kultura Elkarateak euskararen erabilera sustatzeko konpromisoa daukanez eta herriko hizkuntz ohiturak aldatzeko Euskaraldia "ekimen oso garrantzitsua" iruditzen zaienez, *arigunea* izateko izena eman zuten bi helburuak bat datozelako ohiko jardunarekin. "Euskaraldia oso lagungarria izan da guretzat, askotan ohiturak aldaezinak direla uste dugulako, eta halako egitasmo batek maila handi batean erakutsi digu, hizkuntz ohiturak aldatzea zaila

bada ere, ez dela ezinezkoa eta aurrera jotzeko tresnak eman dizkigu", esan du Lurdes Lekuonak. Egindako ariketa etorkizunean ere lagungarria izango dela uste du. Hala, Zalduondoko Lazarraga jauregian dagoen kulturagunea edo museoa ikustera doazen lagunek bisita euskaraz ere egin dezaketela jakingo dute, "eta, horrela, gero eta gehiago zabalduko dugu euskararen erabilera, bai gure udalerriko biztanleen artean, baina baita inguruko herritarren artean ere".



Pandemiak zaildu egin ditu kuadrillen hartu-emanak. LAUTADAKO EUSKARAREN KOMUNITATEA

Euskara lantzen, eremu afektiboan

Lan munduan euskararen erabilera sustatzeko aplikatu diren bi metodologia aplikatu ditu berriki Soziolinguistika Klusterrak Lautadako bost familiarekin eta hiru kuadrillarekin. Pandemia traba izan bada ere, balorazio ona egin dute protagonistek.

Maiteder Sasieta AGURAIN

Hizkuntza batean edo bestean egitearen hautua indibiduala izan daitekeela erakutsi du Euskaraldiak antolatatu den bi urteetan, baina ohiturak bakartasunetik aldatzea zein zaila den ere ikasi ahal izan dute herritarrek. Ariguneen bitartez eremu formalean –lantalde eta elkartetan– taldean ohiturak aldatzeko bidean pausuak ematen ere ikasi dute aurten, rola taldean aurrera eramatea errazagoa dela ikusiz.

Pausu bat aurrerago joanez, Lautadan, primizian, taldekako lanketa hori eremu afektibora (familiara eta kuadrilletara) eramana da. Helburu argiarekin sortu baitzen 2017an Lautadako Euskararen Komunitatea; hizkuntza ohiturak euskararantz aldatzeko helburuarekin alegia, eta helburu horri tinko eusten

dio oraindik ere. Hori oinarri harturik, Euskal Herri mailan lehen aldiz egin den ikerketa baten protagonista izaten ari dira Lautadako hainbat familia eta kuadrilla azken hilabeteotan.

Soziolinguistika Klusterrarekin elkarlanean eta Pello Jauregiren gidaritzapean, etxetik edo lagunartetik hasita, hizkuntza ohiturak nola aldatzen diren ikasten eta ikusten ari dira Lautadako bost familia eta hiru kuadrilla, orain arte lan munduan aplikatu diren Eusle eta Ulerrizketa metodologiak eremu afektibora eramanez baitira proiektu aitzindariari esker.

Ulerrizketa metodoa familietan

Ulerrizketa metodoa hiruko taldeetan aplikatu izan da orain arte lan eremuetan; hiru horietatik bat euskaraz ondo moldatzen dena (mintzatzailea), eta

beste biak euskaraz aritzeko zailtasun handiagoak dituztenak baina ulertzen dutenak (ulertzaileak). Egunerokoan, horrelako egoeretan erdara nagusitzen da gehienetan, egoerak sortzen duen erosotasun faltagatik. Horrek aurrera egitea oztopatzen duen sorgin-gurpil batean sartzen ditu hiztunak; euskara menperatzen duenak euskaraz aritzeko aukerak galtzen ditu eta besteek ez dute euskaraz aurrerapenik egiten hizkuntza erabiltzen ez dutelako.

Ulerrizketa metodoa lantalde batean martxan jartzen denean mintzatzaileari euskarari eusteko eskatzen zaio, gutxienez hamarretik zazpitan. Ulertzaileek ahalegin berezia egin beharko dute euskaraz zein erdaraz erantzunez arau hori errespetatzen dadin. Praktikak erakutsi du gutxika euskara gailentzen dela eta, modu

honetan, jokaera automatikoak egunerokoan nahigabe sartuz, ohitura bilakatzen direla.

Metodo hau familientzat moldatzerakoan ez da aldaketa handirik egin, ikerketarako aukeraturiko bikoteak lantokietako antzeko patroiarekin aukeratu baitira. Baina funtsezko araua aldatu da: mintzatzaileak euskaraz hitz egiteko joera izan behar du, erdia baino pixka bat gehiago, familia bakoitzak neurtu beharko du noraino irits daitekeen eta zenbat izan daitekeen pixka bat hori.

"Amaierarik gabeko prozesua"

Lautadako bost familia ari dira ikerketan parte hartzen, Ozeta, Mezkoa eta Araiako bikote bana eta Aguraingo bi. Araiako Gentzane komentatzen duen moduan "aspalditik amaierarik gabeko euskalduntzeko prozesu batean sartuta" daudelako eman zioten baiezkua gehienek parte hartzeko proposamenari, "eten-gabe elikatu beharreko prozesu bat dela jakinda, etxeko hizkuntza ohitura berriei bultzada bat ematen asko lagundu duelako proiektuak". Bost familiek bat egiten dute proiektuaren garrantzia eta interesarekin, eta baita

"EROSOTASUNERA ERAMATEN GAITU NEKEAK, ERDARARA JOTZEN DUGU"

OZETAKO ANA

egunerokoan erdararak hartzen duen geroz eta espazio handiago horri buelta emateko modua dela esaterakoan.

Baina ilusio eta gogoz hasitako ibilbide honetan dena ez da arrosa kolorekoa izan. Aguraingo Nahiarak komentatzen duen moduan errutina aldaketa "gogorra" izan zen. "Euskarari eutsi behar zion pertsona izanda, zaila da norbait euskaraz egin eta hark erdaraz erantzunez norberak euskaraz jarraitzea".

Ozetako Anaren ustez, berriki, "erosotasun kontua" da zailtasuna baino gehiago: "Bikoteari mezua ulertzea gehiago kostatuko zaiola jakinda eta ulertuarazteko hitz egiteko modua aldatu behar dela kontuan izanda, egunerokotasunaren nekeak erosotasunera eramaten gaitu, eta erdarara jotzen dugu".

Umeak, laguntzaile

Baina familia horietan guztietan umeak daude, eta horiek izan dira aurrera jarraitzeko indarra erakutsi dutenak zenbait kasutan. Aguraingo Edurne eta Alexek 6 eta 9 urteko semeak daukate. "Hasieran oso arraroa egiten zitzaizen amak aitari euskaraz egitea, ez zuela ulertzen esaten zuten, baina pixkanaka ikusi dute aitak euskaraz ulertzen duela. Beraiei propio eskatu diegu prozesu honetan parte hartzeko, aitak euskaraz hobeto uler dezan eta euskarazko erlazio bat lortzeko gure artean", aipatu du Edurnek.

Mezkiako Rebekak ere semeak aitarekin asko lagundu diola onartu du, eta Aguraingo Nahia-raren eta Igorren kasuan seme txikiena izaten zen askotan gurasoak euskaraz egitera bultzatzen zituena. Esperientziarekin eskertuta daude guztiak, eta bat egiten dute denek Mezkiako Rebekarekin: "Hemendik aurrera ere berdin jarraituko dugu, etxean geroz eta euskara gehiago entzuten da, eta hori oso positiboa da".

Eusle metodologia

Eusle metodologia taldeak babestutako jokaera urratzailea da. Izenak dioen bezala, taldeko kide batzuek euskarari eutsi beharko diote beti (euskararen eusleak izango dira) eta gainontzekoek inoiz ezin izango diete eskatu erdaraz hitz egiteko.

Metodologia hau gertuko harremanaren duten lankideez osatutako lantalde natural eta egonkorretan aplikatu ohi da. Taldearen %75eko adostasuna behar da gutxienez ariketa egin ahal izateko, honek hizkuntza ohiturak aldatzeko babes ematen duelako. *Eusleak* zein izango diren ere taldean adosten da, aukeratuak dira eta ez boluntarioak. Errutina horrekin, pixkanaka euskararanzko joera hartzen dela frogatuta dago.

Pello Jauregik azaldu bezala, lan eremutik eremu afektibora moldaketa egiterakoan hartutako erabakirik nabarmenena

partaideen rola definitzerakoan izan da. Lan taldeetan eusleak 5etik 1 izanik, kuadrilletan taldeko kide guztiak rol bat edukitzearen beharra ikusi zuten. Talde afektibo batean gauza guztiak oso argi edukitzea komeni zen, frikziorekin edo gaizki-ulturirik ez sortzeko. Oso ondo definitu zen bakoitzak nola ikusten zuen bestea, denen artean erabaki zuten zein zen euskaraz egiteko gai eta zein ez, denen artean adostuz rola.

Lantaldeekiko diferentziarik handiena elkarrekin pasatzen duten denbora ere bada, lantalde bateko kideek egunero 7-8 ordu pasatzen baitituzte elkarrekin eta kuadrilla batean hori betetzea zaila delako; interakzioa normalean zaila bada, zer esanik ez aurten pandemia dela eta ez dela. Prozesua amaitzerakoan ikusi beharko da nolako emaitzak ematen dituen honek.

Txipa aldatzeko aukera

Agurainen finkatutako baina ondoko herrietako kideak ere badituzten hiru kuadrilla dira Eusle metodologian parte hartzen ari direnak. Ilusio handiz hartu zuten denek ere proposamena, Txo Txerbel kuadrillakoek dioten moduan: "Kuadrillan gehienok euskaraz jakin arren, normalean gaztelaniaz hitz egiten dugu, eta proiektu honetan parte hartzea proposatu zigutenean aukera ona iruditu zitzaion ohitura aldatzeko".

Baina prozesua aurrera eramatea ez da erraza izan. Pandemiak dela eta jarririko neurriek erabat oztopatu dute kuadrillen jarduna, eta asko antzeman da hori proiektua aurrera eramaterakoan. Unai Martinen kuadrillan gogotsu hasi arren, indarra galtzen hasi ziren pixkanaka: "Pandemiak asko oztopatu zuen metodologia, izan ere, astean behin biltzen ginen giro erabat euskaldun batean afaltzeko, eta mugimendu murrizketekin utzi genion ohitura horri, eta ez dugu eten horri buelta ematerik lortu".

Jon Ruiz de Pinedoren kuadrilla ordea gustura dago: "Guztiok aldaketa nabarmenak ikusi ditugu gure jokaeran, eta denborak esango du, baina aldaketa horiek geratzeko etorri direla uste dugu. Lehendik *ahobizi* ginenoi papera erraztu zaigu, eta prozesu honek ondorio positiboak ekarriko ditu".

"KUADRILLAKO GUZTIOK ALDAKETA NABARMENAK IKUSI DITUGU"

JON RUIZ DE PINEDO

"ETXEAN GEROZ ETA EUSKARA GEHIAGO ENTZUTEN DA; OSO POSITIBOA DA"

MEZKIAKO REBEKA



Aguraingo bikoteek 'ulerrizketa' formazio saioan parte hartu zuten. LEK

Saio hau beste urte batean egin izan balute, emaitza desberdina litzatekeela uste dute, baina aurtengo prozesuak ere emaitzak utziko dituela seguru daude denak. "Uste dugu esperientzia honek txipa aldatzen lagunduko digula. Gogotsu gaudela, eta hau gure bidearen hasiera dela uste dugu", nabarmendu dute Txo Txerbel kuadrillako kideek.

Emaitzari itxoin behar

Jauregi ari da 2019ko abenduan mamitzen hasi zen proiektuaren koordinazio lanetan. Onartu du gustura ari dela lanarekin: "Ilusio handiarekin ari naiz bizitzen prozesua. Ohore bat da niretzako Lautadako jendearekin lan egitea; gogo handia, kemena eta jende prestatua aurkitu ditut". Jakin-minez dago izangon diren

emaitzekin, lehen aldia baita metodologia hauek eremu afektiboan aplikatzen direna, eta eskertuta existitzen diren dinamika eremu berrietan aplikatzeko aukera eman zaiolako. Zailtasunak zailtasun, kasu batzuetan hobeto funtzionatu baitu beste batzuetan baino, etorkizuna izan dezakeen esperientzia izan daitekeela uste du Jauregik.

Prozesuaren lehen fasea bete da, eta bi hilabete barru berriro elkartuko dira parte-hartzaileak Jauregirekin, lortutako horiek mantendu diren ikusteko. Datu horiek biltzean egingo da azken balantzea eta jakingo da zein den prozesuaren emankortasun tasa, 10etik zenbatek funtzionatzen duen alegia. Lautada soro emankorrez beteta egonik, jarrai dezagun bada lurra ereiten. ■





Joseba Legarda Lautadako euskara teknikaria, Azilun. MIRIAN BITERI

"Eskualdeko mahaia osatzea beharrezkoa dela uste dut"

JOSEBA LEGARDA LAUTADAKO EUSKARA TEKNIKARIA

Eskualdeko euskararen elkargunea osatzea garrantzitsua izan daitekeela uste du Joseba Legarda Lautadako Kuadrillako euskara teknikariak, beste alor batzuetarako antolatutako moduan, "denen helburu bateratuak" mahai gainean jarri eta aurrera begirako pausoak prestatzeko.

Mirian Biteri AGURAIN

Lautadan emandako pausoak itzelak izan direla nabarmendu du Joseba Legardak, baina aurretik bide luzea ere badela gogoratu. Besteak beste, eskualdeko ikuspegian oinarritutako jarduna behar dela uste du.

Lautada erreferente bilakatu da azken urteotan euskararen alde egindako lanagatik. Albiste pozgarria da, ezta?

Bai, pozgarria benetan, sekulako dinamika sortu da euskal hiztunen aktibazioaren inguruan. Urteetan emandako eboluzioa izan da. Hasiera batean *Baietz 15 ordu euskaraz* ekimenarekin hasi, ondoren 75 ordu euskaraz ekimenarekin jarraitu, eta Euskaraldia ekimenarekin gabiltza orain. Baita Soziolinguistika Klusterrarekin batera beste esperientzia pilotu batzuk garatzen ere, lagun kuadrilletan eta familietan euskararen erabilera sustatzeko asmoz. Jende asko ibili da honen guztiaren atzean, eta egitasmoak desberdinak izan badira ere, guztietan sekulako dinamika, lana eta inplikazioa egon da atzean. Bata bestearen ondorioa izan direla esango nuke, dinamika hori eboluzionatzen joan da Lautadako Euskararen Komunitatea sortu arte. Agurainen hasi zen dinamika eskualde osora zabaldu da, eta hori oso berri pozgarria da. Hori da nik gehien baloratzen dudana, eskualdeko ikuspegi hori, eskualdeko herri gehienetan komunitatea ordezkatzeko duen eta eragiteko prest dagoen jendea egotea, hori sekulakoa da. **Ezagutzaren eta erabileraren inguruko daturik al duzu?**

Ezagutzaren inguruko azken datuak 2016koak dira, eta egia esan, oso datu positiboak dira, urteak aurrera egin ahala, eza-

gutza datuek gora egin baitute etenik gabe. Gainera, udalerrien artean aldeak egon arren, nahiko homogeenoa dira: Euskaldunak %30 inguru dira, ia euskaldunak %25 inguru eta erdaldunak %45. Erabilera daturik ez dugu; ditugun azken datuak aspaldikoak dira eta gaur egun ez dira batera adierazgarriak. Hala ere nahiko genukeen baino baxuagoak direla. Euskaraldia bezalako ekimenek horri buelta ematen lagunduko badigute ere, oraindik ere egin beharreko bidea luzea eta aldapatsua da. **Ba al dago diferentziarik eskualdea osatzen duten udalerrien artean?** Ezagutzan, salbuespenak salbuespen, nahiko antzekoak eta homogeenoa dira. Erabileran berriz, alde handiagoak daude. Esango nuke Lautadako ekialdean gehiago erabiltzen dela, baina nire pertzepzioa besterik

"MIKROPLANekin AURRERA EGITEN ARI GARA; ERAGINA NABARITZEN HASIA DA"

"ORAINDIK ERE EGIN BEHARKO DUGUN BIDEA LUZEA ETA ALDAPATSUA IZANGO DA"

ez da. Egia da, euskalgintza mugimendua garatuago dagoela ekialdean, eta batez ere, Agurain inguruan, bertan baitaude euskaltegia, ikastetxe gehienak eta euskalgintza egituratuak, eta horrek badu bere eragina.



IRURAIZ-GAUNAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE IRURAIZ-GAUNA
C/ Azilu n° 4 - 01193 AZILU (ARABA-ÁLAVA)

Idazkaritza: airuraiz@ayto.araba.eus
Administrazioa: airuraiz.general@ayto.araba.eus
Zabalpenerako: dejatupropuesta@iruraiz-gauna.com
Webgunea: www.iruraiz-gauna.com

Bulegoa: 945300991 - Mugikorra: 662938822



Lautadako Euskararen Komunitatea, azaroan Dulantzín egin zuten asanbladan. LEK

Euskararen sustapena bultzatzeko, zer nolako proiektuak dituzue gaur egun esku artean?

Askotarikoak, arlo ugari jorrazten ditugu eta. Nabarmentzekoak dira gazte zein umeei zuzendutako aisialdi egitasmoak, *Oxigenoa euskarari*, udalekuak eta jolastokiak, esaterako; kirol eskaintza euskalduntzeko egitasmoak hainbat herritan; helduen erabilera sustatzeko *Berbalagun* egitasmoa; bertsozale-tasunaren bidez euskararen adierazkortasuna, kalitatea eta sormena sustatzeko eskola eta tailerrak; euskararen erabilera-aren inguruan gazteak ahalduntzeko *Eusliderrak* egitasmoa; udalerrri txiki-txiki herri txiki guztietan euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko hainbat egitasmo, Barrundiako *Ei Txo jauzi egin*, eta *Euskaraz hitz egin!* modukoak; eta beste hainbeste. Hauetako batzuk erakunde-ekin ekimena dira, eta beste batzuk eskualdeko eragileekin elkarlanean bideratutakoak

Horietako bat aisialdi, kirol eta bes-telako elkarten artean mikro eus-kara planak sortzearena da.

Hainbat urte daramagu eskualdeko hiru herri nagusietako kirol eta aisialdi taldeekin euskararen erabilera sustatzen, eta horretarako hainbat mikroplan eta hizkuntza irizpide onartu dituzte taldeek. Orain horiek abian jartzen saiatzen ari gara, poliki baina etenik gabe. Pixkanaka aurrera egiten ari gara, eta orohar, eragina nabaritzen hasia da. Guztira, Dulantzi, Araia eta Aguraingo 15 bat talde inguru izango dira planak onartu dituztenak. Planak onartzeaz aparte, taldeekin adostutako hitzarmen eta dirulaguntza deialdietan hizkuntza irizpideak ezarri ditugu. Eta udal kirol eskaintza euskalduntzen joateko hainbat neurri hartu ditugu, eta martxan jartzen saiatzen ari gara, kostata, kirol arloa ez delako erraza, baina ari gara. Esaterako, kontratazioetan hizkuntza irizpideak ezarri ditugu,

eskaintza erabiltzaileen hizkuntzaren ezagutzaren arabera antolatzen saiatzen ari gara...

"LAUTADA BEZALAKO ESKUALDE BATEK GIZA BALIABIDE GEHIAGO BEHAR DITU TAXUZ ARITZEKO"

"ERAKUNDEEN INPLIKAZIOA EKONOMIKOA IZAN DA, BATEZ ERE, ORAIN ARTE"

Kuadrillako euskara teknikari bezala, zure lana garatu ahal izateko baliabide nahikorik al duzu?

Hutsune handiena giza baliabideetan antzematen dut. Horretan eragin handia dauka nire lan jarduna antolatzeko moduak,

lehen esan dudan bezala, udal-letan aritzen naiz, eta udal ba-koitzak bere planifikazio propioa dauka, horrek dakarrenarekin. Faltan botatzen dut eskualdeko ikuspegian oinarritutako jarduna. Udalka aritze horrek eragin handia du nire jardunean, eta dispersioa, atomizazioa eta fronte askori aurre egiteko beharra ekartzen du. Horrez gain, lan administratiboa ere handia da, eta horrek denbora kentzen die normalizazio lanei. Lautada bezalako eskualde batek giza baliabide gehiago behar ditu euskararen normalizazioan taxuz aritzeko, eta horrez gain, eskualde mailako plangintza eta jarduna, udalerrrikakoa baino. Orain, lehenasuna zerbitzuaren berrantolaketa eta berregituraketan ikusten dut.

Euskara sustatzeko ahalegin horretan, azpimarratzekoa da Lautadako Euskararen Komunitatearen lana. Zein da erakundeen inplikazioa herritarrek martxan jarritako dinamika horren aurrean?

Erakundeen inplikazioa, orain arte behintzat, hitzarmen bidez laguntza ekonomikoa eta babes instituzionala ematean oinarritu da gehien bat. Elkar-lana nire bitartez gauzatzen da, baina ekarpen handiena hitzarmen bidezko ekarpen ekonomikoa da, zortzi udalek eta kuadrillak egiten baitute ekarpen ekonomikoa biztanle kopuruaren arabera. Aipatu beharra dago, erakundeek azken urteotako Euskaraldietan izandako parte hartzea oso handia izan dela, erakunde zein langileen aldetik. **Lautadako Euskararen Komunitatearentzat funtsezkoa da elkarlanean jardutea, eta aspaldikoa da mahai bat osatzeko aldarrikapena. Pandemiak dela eta, aurten bertan beharra utzi egin da hori guztia.**

Eskualde mailako euskararen mahaia edo elkarlanerako gune hori osatzearena aspaldian darabil buruan, nik hainbat guntan sarritan egindako ekarpena da, gero Euskararen komunitateak proposamen baten bidez gauzatu duena. Nire ustez beharrezko elkargunea da, horren bidez eskualdeko helburu bateratuak eta komunak izatea lortuko genuke. Aurrera begira, modu batean edo bestean, gauzatu beharreko helburua iruditzen zait. Baina hori iritzia da, nik ezin dut erakundeen iritzirik eman, oraindik erakundeetan jorratu gabeko gaia delako. Udal asko dira, eta hainbat iritzi egongo dira gune horren funtzioen eta egituraketaren inguruan, ziur aski, baina gai-ari heldu beharko diogu noizbait. **Duela urte batzuk eskualde mailako euskarazko aldizkaria martxan jartzeko lehen saiakera egin zuten. Baina kale egin zuen, ezta?**

Bai, Sakanako Guaixe eta Debagoienekoekin bileretan aritu ginen, baina ez genuen inolako emaitza praktikorik lortu, hurbilpen batean geratu zen kontua. **Orain, aukera berri bat egon daiteke. Zer ekarpen egin dezake Lautadako Alea bezalako aldizkaria martxan jartzeak?**

Ekarpen handia. Euskarazko salbuespenak gutxi dira, eta Lautadan horrelako ekimen baten mesede handia egingo lioke euskararen prestigioari eta ahalduntzeari. Komunikabideekin sare sozialekin gertatzen den gauza bera gertatzen da, ia dena gazteleraz dago, eta ez gara konturatzen zenbaterainoko eragina daukan horrek gizartean, eta are gehiago ume eta gazteengan. Euskalduntzearen ildo estrategiko garrantzitsuak dira komunikabide eta sare sozialak.





JOSUNE GARCIA DE BIKUÑA
EUSKARA IRAKASLEA

Irribarrea

Goizean, lanerako bidean nindoala, haur txiki batek "egun on" alai batez agurtu nau. Ez nuen aurretik ezagutzen, eta ezustean harrapatu nau bere eskuzabaltasunak; izan ere, duela gutxira arte azkarregi mugitzen zen gizartean, ez genuen horrelako hutsalakerietarako denborarik izaten. Grisetik hasitako egunak ukitu urdin eta berdeak hartu ditu orduan, eta eskertuta, irribarre batez erantzun diot. Berak, ordea, ezin izan du ezpainetan sorrarazi didan argi izpia ikusi.

Momentu horretan, behin lagun batek aipatutakoa gogoratu dut. Gurean irribarre gutxi egiten dugula esan zidan; bere herrian, aldiz, norbaitekin gurutzatu eta begietara begira irri egiten ziotela elkarri, pertsona ezaguna izan ala ez. Horrelako jendarte batean bizitzea polita izango litzatekeela pentsatu nuen, irribarre ahoan errazagoa baita egunerokoari ekitea.

Orduan konturatu nintzen, orokorrean, ez ditugula gure sentipenak agerian utziko dituzten keinuak oso gustuko. Ez dira gutxi horri azalpena emateko sortu diren teoriak, zein baino zein bitxiagoa. Batzuek eguraldiaren ondorioa

FALTAN DITUT IRRIBARREAK, BAITA HORTZAK ERAKUTSI GABE EGITEN DIREN HORIETAKOAK ERE

zaigula pentsatzen duenik ere bada.

Hala ere, bada inork atzematea nahi ez dugun arrazoia, beldurra, besteek pentsatuko dutenari beldurra, hain zuzen ere. Moralaren izenean, oso argi utzi digute txikitatik zer dagoen ondo eta zer gaizki: irribarre egin bai, baina estu; barre ere bai, baina txiki, algararik gabe. Negar, ez negarrik egin, edo, behintzat, egizu inork ikusten ez zaituenean, etxeko lau hormen artean ahal dela. Eta horrela, azala gogortu egin zaigun arte, eta azalarekin batera ez dakit ez ote zaigun bihotza ere zurrundu.

Musukoak sudurraren azpian gertatzen dena ikusten uzten ez duen honetan, askoz errazagoa da beldurrak, lotsak eta desioak disimulatzea. Eta izango da horrela erosoago sentituko denik, baina nik faltan ditut herrikideen irribarreak, hortzak erakutsi gabe egiten diren horietakoak badira ere. Agian, oihal puska hori kentzen dugun egunean, inoiz baino gogo handiagoa izango dugu gure erraietan gertatzen den guztia partekatzeke, eta orduan, bidean gurutzatzen ditugunoi oparituko dizkiegun irribarreetan askatuko ditugu hilabete hauetan guztietan tripetan herdoilduta geratu zaizkigun korapiloak. ■■■

dela diote. Dirudenez, gure masailak eta ezpainak izoztu egiten ditu hotzak, baita malkoak ere. Kulturarekin lotura duela ere esaten da. Euskaldunak itxiak, serioak, arduratsuak omen gara, eta nolabait, balio horiek ez dira bateragarriak bizipozarekin. Horrez gain, etengabeko aldarrikapenean bizi behar izateak gozamerako espazio gutxi uzten duela eta izaera ozpindu egin



IÑAKI MARTINEZ DE LUNA
SOZIOLINGUISTA

Ulertezina

Arabako Lautadako Euskararen Komunitateko kideak eta zenbait udaletako ordezkariak elkartu dira abenduaren hasieran. Bileran ezustekoa gertatu zen: 2018an abiatutako bi eragile mota horien arteko elkarlana bertan behera utzi eta hitzarmena ez berritzeko asmoa adierazi zuten udal ordezkariak. Beraz, horrela izatekotan, 2021ean, Lautadan ez da hizkuntza ohiturak aldatzeko elkarlanik egongo. Horretarako udal ordezkari horiek emandako argudioa da euskararen aldeko zereginak erakundeetako teknikarien bitartez bideratu nahi dituztela.

Arabako Lautadan gaur egun bizitzen ari garen dinamika ilusionagarria da. Euskarazko gaitasuna asko hedatu da eta erabileran ere urrats handiak ari dira egiten. XX. mendeko Lautada ezagutu genuenok bizipoza baino ezin dugu sentitu, gero eta agerikoagoa baita euskararen loraldia. Biziberritze hori, erakundeen zein herri-ekimenaren ahaleginen eta denon arteko lankidetzaren emaitza da. Zergatik eten dinamika emankor hori?

Badira urte batzuk, euskara hauspotu asmoz, kolore eta interes politikoaren ginetik –alderdikeriaren ginetik– euskararen aldeko ekimenetan eskutik ibiltzen hasi zirela sentsibiltate ezberdineko eragileak. Horren lekuko da Mikel Irizarrek, 2017an Gipuzkoako Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendari zenean, idatzi zuena: "Uste dut egintzat eman dezakegula euskararen prozesua aro berri batean sartzeko lehen baldintza: zoru komun bat

identifikatzea, terminologia eta diagnostikoak hurbiltzea, lubakien gainean zubi behin-behinekoak jartzea... Zantzu asko dago, izan Korrikaren Santiago zubiko argazkia, Udaltop jardunaldiko ekimena, Euskal Herriko euskararen erakunde publikoen lankidetzak akordioa...".

Giro berri horrek jarraipena izan du azken urteotan. Gaur egun, ohikoa da izaera eta sentsibiltate oso ezberdineko erakundeak eta eragileak euskararen aldeko ekimenetan eta hausnarketetan elkarrekin aritzea. Hona hemen zenbait adibide: Eusko Jaurlaritzaren Euskara Batzordearen baitan, Eredu Sozioekonomiko Pribatua izeneko lan-ildoaren ardura Gizarte Erakundearen Kontseiluak bere gain hartu berria izatea; 2020an, Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak elkarrekin bi jardunaldiak antolatzea; Topaguneak 2018ko eta 2020ko Euskaraldia Jaurlaritzarekin batera era arrakastatsuan aurrera eramatea...

Lautadan ere euskararen zoru komunak biltzen bagaitu, zergatik eten gero eta emankorragoa gertatzen ari den udalen eta gizarte eragileen arteko elkarlana? Ulertezina litzateke Lautadako euskaltzaleontzat..., zein Euskal Herri osokontzat. ■■■

GABON HAUETAN

HANDITAN pentsatu,
TXIKIARI erosi

LAUTADA
bizirik
acicsa

lautadabizirikacicsa.com

Euskaraz ;)



GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN

Kutxabanken
ere euskaraz



"Inoiz baino beharrezkoago da tokikoa sustatzea"

DAVID ALVAREZ ETA TXUS URRUTIA MERKATARITZA ALORREKO ERAGILEAK

Negoio eta herri bakoitzaren ezaugarrien arabera laguntza eta arreta bideratzea eskatu diete instituzioei; herritarrei, tokiko merkataritzaren aldeko hautua egiteko.

Juanma Gallego AGURAIN

Kuadrillako merkataria eta ostalariek bizi duten egoeragatik kezkatuta agertu dira Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendialdeko merkataritza teknikari David Alvarez eta Lautada Bizirik ACICSA merkataritza eta ostalaritza elkarteko presidente Txus Urrutia. Covid-19aren krisiaz gain, sektoreak aspalditik beste bi arazo handi dituela ohartarazi dute: saltoki handiak eta internet bidezko erosketak.

Nolakoa da sektorearen egoera gaur egun?

David Alvarez: Ziurgabetasuna daukagu, ez dakigulako zer gertatuko den Gabonetan. Funtsezkoa da neurriak argi edukitzea, merkatariek bezeroak nola artatu ahal izango dituzten jakiteko. Badirudi denborarekin neurriak arinduko direla, eta kalera ateratzeko aukerak handituko direla. Baina, halere, jarraitu behar dugu jendea kontzientziazten tokiko merkataritzan kontsumitzeko beharraz, eta horretara animatu nahi ditugu. Batez ere aurten gertatu den guztiarekin, inoiz baino beharrezkoagoa da merkataritza eta ostalaritzan kontsumitzea, gure kuadrillako merkatariek atek itxi behar ez ditzaten.

Zifretan, zenbat komertzio daude Kuadrillan?

D.A.: Lautadan 60 bat establezimendu daude. Zorionez, dakigula, gurean Covid-19a dela eta inork ez ditu atek itxi behar izan. Egia da, ordea, establezimendu bateko kide batek erretiroa aurreratzea erabaki duela. Dena dela, seguruenera ondorioak datorren urtetik aurrera nabaritutako dira.

Orain egoerarik gogorrena agian tabernariena da, ezta?

Txus Urrutia: Bai, ostalaritza da egoerarik txarrenean egon dena. Itxita egon gara, eta gero aukeza izan dugu etxeko banaketa egiteko, eta baita eramateko moduko kafeak prestatzeko ere. Agurainen kasuan, 18 bat taberna gara, baina soilik lau mantendu dira irekita. Ordu batzuk ireki dituzte, eta zertxobait saldu dute, baina hori ez da jasangarria. Aurten egoera oso latza izan da: irekita egon garenean, murrizketa handiak izan ditugu; mantendu beharreko distantzietan eta aforoetan, batez ere. Kontsumoa bultzatzeko hainbat bono kanpaina egin dira, baina horiek ez dira oso egokiak tabernetarako.

Gainerako merkatariek nola bizi izan dute?

T.U.: Denetarik egon da. Udallerri mailako konfinamenduak ekarri du herrian bertan egindako erosketek gora egitea, batez ere elikagaiak saltzen dituztenen kasuan. Baina sektorearen krisia aspaldikoa da: Gasteiz 20 minutura egonda, jende askok saltoki handietan erostera joateko ohitura du, eta internet bidezko erosketen aurrean ere lehiatu behar dugu.

Suposatzen dut erronketako bat izango dela udallerri mailako konfinamenduan hartutako ohitura hori mantentzea...

D.A.: Hala da. Horregatik, jarraitu behar dugu azpimarratzen tokiko merkataritzan kontsumitzeko beharra. Egoerak ekarri du jendeak bertako merkataritzan kontsumitzeko esperientzia izatea, eta, ondorioz, gaiaren inguruko kontzientziazioa handitzen ari da.

Oro har, jendearen partetik zer harri sumatu duzue?

D.A.: Aurten, erakunde desberdinek sustatuta, tokiko kontsumoa bultzatzeko lau bono kanpaina egin dira, eta jendeak oso ondo hartu ditu. Orain, merkataritza elkartearekin batera, Aguraingo Udalak Gabonetako kanpainari begira beste bat abiatu du. 6.000 euroko inbertsioarekin, 1.200 bono kaleratu dira. 15 euroren



David Alvarez eta Txus Urrutia, Lautadako merkataritza alorreko eragileak, Aguraingo San Juan pl...

truke 20 euroko erosketak egin daiteke. Dulantzik ere bonuen kanpaina propioa martxan jarri du. 18.000 euroko inbertsioa egin dute, baina planteamendua desberdina da: 45 euroren truke, 60 euroko erosketak egin daitezke, 12 bonotan banatuta; sei bono ostalaritzan erabiltzeko eta beste sei komertzio eta zerbitzuetan kontsumitzeko. Asmoa da, noski, deskontu horren bitartez Gabonetan eta urtearen hasieran kontsumoa berraktibatzea: Aguraingo kanpaina urtarrilaren 31ra arte izango da, eta Dulantzikoa, otsailak 28ra arte.

Ekonomia aldarte bat dela esan ohi da. Baina bono horiena ez al da izango adabaki bat?

"UDALERRIEN EDO SEKTOREEN ARABERAKO EGOERAK OSO DESDERDINAK IZAN DAITEZKE"

"SALTOKI HANDIAK, INTERNET BIDEZKO EROSKETAK... HORIEK DIRA DUGUN ARAZORIK HANDIENA"

D.A.: Adabakia izan daiteke, baina kontsumoa berraktibatzea lortzen du. Jendea kalera ateratzera eta erostera animatzen du. Eta ikusten duzunean jendea kalean dagoela, horrek laguntzen du egoera normalizatzen. Argi dago, noski, herri bakoitza desberdina dela. Adibidez, Agurainen udallerri mailako konfinamenduak ekarri du herrian jende gehiago asteburuetan kalera ateratzea. Konturatzen zara herrian bertan ere aisiaz gozatzeko parada dagoela, eta giroa dagoela. Txikiak izan arren, Araian edo Dulantzian industria nahikoa daukate, eta bertara lanera doan jende askok ere herrian bertan zerbait kontsumitzen du. Baina badira beste egoera batean dauden herriak. Arabako Errioxan, adibidez, Guardiaren kasua guztiz desberdina da: bertan turismoarekiko dependentsia handia dago, eta herrian bertan egindako kontsumo hutsak ez du bermatzen bertako merkatariek eta ostalariak aurrera ateratzea.

Instituzioei zer eskatzen diezue?

D.A.: Instituzioek askotan denontzako kafearen filosofia jarraitzen dute, eta ez dituzte kontuan hartzen berezko ezaugarriak. Aurrean aipatu bezala, udallerrien arabera egoerak oso desberdinak izan



lazan. JUANMA GALLEGO

MASAJES LAURA
Naturopata znb: 4092

Gorputz arretasua - gorputz osasuntsua
Laura López-Quintana

- Kiromasajea
- Drainatze linfatikoa
- Masaje lasaigarri eta deszentratuturatzailera

AGURAIN (ARABA) 696 007 052

Hogar Larrea
Residencia para Mayores

945 31 72 02

**Etxebitarte 2,
Larrea (Araba)**

KiVa

lautada
ikastola

2 URTETIK 16 URTE ARTE
www.lautadaikastola.eus

Tlf: 945 300 215
(Agurain)

ikastolenelkartea

OKT
ELKARTEA

Barrundiako kontsumitzaile taldea

oktekonomatosa
oktekonomatosa@gmail.com
<http://oktekonomatosa.blogspot.com/>

Bizi herria-herria bizia
Barrundian gure merkatua -
Comercio de proximidad en Barrundia

daitezke, baina baita sektorearen arabera ere. Ez da berdina fruta denda bat edo arropa denda bat. Negozio bakoitzaren egoera kontutan hartu behar da, modu logiko eta arrazional batean lagundu ahal izateko. Horregatik instituzioei eskatuko nieke merkataritari eta ostalariekin zuzenean biltzeko, ideiak batu eta, horren arabera, erabakirik onenak hartu ahal izateko. Bestetik, eta urtearen amaieran gaudenez, askotan aurrekontuak bukatzen ari dira, eta datorren urterako aurreikusita zeuden partidekin jokatu behar da. Lehen olatuan, ezustean harrapatu arren, diru gehiago zegoen laguntzetarako. Egoera zaugarriagoa da oraingoa.

T.U.: Beharrezkoa da tokian tokiko arreta hori. Esango nuke laguntza horiek hiri handiak buruan edukita pentsatuta daudela. Adibidez, alokairuak ordaintzeko laguntzak martxan jarri dira, baina herri txikietan jende gehienak lokal propioak ditu. Eredu desberdinak dira. Horregatik instituzioei elkarlan gehiago eta gure eskariei irekita egoteko eskatuko nieke. Eta, bestetik, prozesuak erraztea, askotan burokrazia gehiegi dagoelako.

Nola ikusten duzue etorkizuna?

D.A.: Egoerak hainbat aldaketa ekarri ditu, halabeharrez. Modu batean edo bestean, saltoki askok euren kabuz nolabaiteko digitalizazioa egin behar izan dute. Alarma egoera ezarri eta hurrengo astelehenean, denda askotan telefono edo whatsapp bidezko eskariak hartzen hasi ziren, erosketak etxera eramateko. Askok ohitura horri eutsi diote. Esfortzu gehigarria da merkatarientzat, noski, baina bezeroak pozik daude zerbitzuarekin. Eta ez soilik adinduen edo mugitzeko ezintasuna duten lagunen kasuan, bestelako egoerak ere izaten direlako etxeetan.

T.U.: Pandemiari dagokionez, ni baikorra naiz, hau koiunturala

"GASTUEI AURRE EGIN AHAL IZATEKO, ZUZENEN KONTSUMO BERRAKTIBATZEA BERRAKTIBATZEA LORTZEN DUTE"

"BONUAK ADABAKIA IZAN DAITEZKE, BAINA KONTSUMO BERRAKTIBATZEA LORTZEN DUTE"

da eta. Agian udaberrirako gauzak normaltzen hasiko dira. Larriagoa iruditzen zait aurretik daukagun arazo estruktural hori: Gasteiz eta saltoki handiak hain gertu edukitzea, biztanleria gutxi izatea, internet bidezko erosketak... horiek dira ditugun arazorik handienak.

Gabonetarako neurri berriak hartu ditu Jaurlaritzak. Zer iritzi duzue?

T.U.: Gabonak baino lehen irekitzeko erabaki berriarekin pozik gaude, baina ordutegia eskasa da. Arratsaldean gehiago luza zitekeen. Gure ustez, neurri horiek mesedegarriak izan daitezke tokiko merkataritzarentzat, eta pixkanaka normaltasunera itzultzea errazten du. Hala ere, sektoreari zuzeneko laguntza gehiago eman behar zaizkio egoera horrek dakartzan gastu ekonomikoak ordaintzeko.

D.A.: Albiste onak dira ostalaritzarentzat. Sektore honetan lan egiten dutenekin errespetuz tratatu behar dugu, establezimenduetako neurriak betez, hala nola maskara jarrita mantentzea janaririk edo edaririk hartzen ez denean. Ostalariek ezin dute gure atzean egon. Orain, tokiko erosketak egiteko sentsibilizatzen jarraitu behar dugu, nahiz eta Araba osoan mugitu gaitzkeen.

"Goizez autobus bakarra dago Gasteizera joateko"

GOTZON LOPEZ GARRAIO PUBLIKOA LAUTADARAKO PLATAFORMAKO KIDEA
Garraio publikoa okerrera doan zerbitzua dela uste dute eskualdeko erabiltzaileek. Horregatik, Garraio Publikoa Lautadarako plataforma sortu zuten udazkenean.

Mirian Biteri AGURAIN

Lautada eta Gasteiz artean kalitatezko garraio publikoa egon beharko litzateke, kontuan izanda trena eta autobusa daudela. Baina ez da horrela, eta eskualde mailako plataforma osatu dute zerbitzu "duina" eskatzeko. Bertako kide Gotzon Lopezek gaur egungo egoeraren berri eman du.

Garraio publikoaren aldeko plataforma osatu duzue Lautadan. Zerregatik?

Azken urteotan, garraio publikoa Lautada guztian okerrera eta gutxiagora doala ikusita, gure kabuz mugitu beharra zegoela pentsatu genuen herritar talde batek. Erakunde publikoek ez dute gai honen inguruan baxterekin laguntzen, eta hori horrela, plataformaren bitartez ikustaraztea erabaki dugu.

Sinadurak batzea izan da lehen urratsa. Zelan doa?

Dagoeneko 700 sinaduratik gora jaso ditugu. Badirudi ez direla sinadura asko, baina kontuan izanda koronabirusa dela eta hori jasotzeko dugun modu bakarra plataforma digitalen bidez dela, pozik gaude. Aurrerantzean ere bilketarekin jarraituko dugu, hasieran jarritako helmuga gainditu badugu ere. Interesatuak <http://Labor.eus/LautadaTP> loturan eman dezakete babesa.

Eta hemendik aurrera zer?

Eskualdeko eragile ezberdinekin batzen hasiko gara laster, arazoaren nondik norakoak azaltzeko eta sinadura bilketan nahiz auziaren konponbidean parte hartu dezaten eskatzeko. Bestalde, problematika ezagutarazteko bestelako jarduerak batzuketara egitea ere pentsatu dugu.

Abenduan, autobus linea berriak martxan jarri ditu Arabako Foru Aldundiak, eskualdeko herri txikiak eta erreferentziako herriguneak erregulartasunez lotzeko helburuarekin. Nola ikusten duzue neurri hori?



Gotzon Lopez, plataformako kidea. GOTZON LOPEZ

Ez da nahikoa, aurrerapauso positiboa bada ere. Kontuan hartu behar da autobus horiek hartu ahal izateko aldeaz aurretik deitu beharra dagoela eta, hortaz, erabiltzaileek diote *sal-duta* jarraitzen dutela. Bestalde, problematika handienak ere, zoritxarrez, oraindik ere, konpondu gabe jarraitzen du: hain zuzen ere, Lautadako erreferentziako herriak hiriburuarekin lotu gabe daudela.

Zer da zehazki Lautadan gertatzen dena?

Azken urteotan, autobusen ordutegia aldatzen joan da, geroz eta murriztagoa da, eta bai, Covid-19aren kontuarekin, okerrera egin du, goizeko autobusak kendu dituztelako. Gaur egun, goizean, autobus bakarra dugu Gasteizera joateko; hain justu ere, 07:00etakoa. Ez dago besterik 16:00ak arte.

Eta trenekin zer?

Arazoa antzekoa da. Trenbideak eta geltokiak ditugu jarrita, baina ez dugu trenik. Gertuko trenik ez dago, dauden bakarrak distantzia ertainekoak edo luzeak dira; alegia, Madrilera edo beherago doazen trenak. Egunero, hiru bat bider pasatzen

direnak norabide bakoitzean. Bidaia horien prezioa, gainera, oso garestia da. Horren aurrean, geltokiak dituzten herrietan geldialdiak egiten dituzten trenak eskatzen ditugu, erabilera eraginkorrerako bonu eskuragarriak eta ekonomikoak dituztenak.

Zein da Lautadan dagoen arazoa, kontuan izanda herrialdeko bestelako kuadriletan zerbitzu hobea dagoela?

Arazoa da Arabako Diputazioak berak ez duela garraio publikoa zuzenean kudeatzen; gure kasuan, Nafarroako Gobernuaren eskuetan uzten du. Lautadan dauzkagun autobusak dira Nafarroako Gobernuak Gasteizera joateko jarritako lineak. Nafarroako Gobernuaren menpean gaude, eta horrek ez du zentzurik. Diputazioari eskatzen dioguna da beste kuadriletan egiten duen bezala egin dezala Lautadan ere; ez dugu besterik eskatzen. Hain justu ere, Diputazioak kudeatutako zerbitzua izatea, beste kuadrillek dutena. Eta horrekin lotuta, bidaiak merkeagoak izatea, izan ere, Gasteizera joateko ez dugu Bat xartela erabiltzeko eskubiderik.



Fibrozementua kentzeko lanak egin dituzte Ajuria fabrian. ASPARRENEKO UDALAK

Ajuriatik 130 tona fibrozementu kendu ditu Asparrenak

Lurreko eta teilatuko hondakinak kendu ostean, burdinazko hezurdura bakarrik du fabrika zaharrak.

Erredakzioa ARAIA

Ajuria fabrika zaharraren inguruko paisaia berreskuratzeko lanetan dabil Asparrena, eta bertan geratzen zen zuntz-zementuaren hondakin guztiak kendu ditu. Hain justu, 130 tona fibrozementu jaso dituzte.

Aurreko fase batean, zero kottan zeuden hondakin arriskutsu

guztiak atera zituzten, eta, orain, material hori teilatutik kendu dute. Lanei esker nabarmen aldatu da; fabrikak, orain, burdinazko hezurdura bat baino ez du. Obrak, baina, ez dira honen amaituko eta lanen hurrengo urratsa ikaztegi zaharretako eraikinen fibrozementua kentzea izango da.



ARTZAI GAZTA

Lautadan, gaztarik onenak

Euskal Herriko Idiazabal Artzai Gazta Txapelketaren XXXVII. edizioan, hiru gazta onenak arabarrak izan dira: Ilarduiako La Leze gaztategiko La Leze gaztak irabazi du lehenengo saria; bigarrena, Galarretako Azkarra gaztategiak lortu du; eta, azkenik, hirugarrena Patxi Lopez Uralderen Larreako Gazta gaztategiarentzat izan da. Zorionak hiruroi!

Urtegiak irentsitako oroitzapenak, agerian

Uribarri Ganboako urtegia eraikitzeak Lautadan kaltetu asko eragin zituen, Burgu, Barrundia eta Ganboako udalerrietan. Ur azpian desagertu ziren herriak eta bertan bizi zirenak gogorarazteko informazio panelak jarri dituzte aurten.

Mirian Biteri BARRUNDIA

Uribarri Ganboako urtegia eraiki eta 60 urte beranduago, osorik edo zati batean ur azpian desagertu ziren herriak gogoratu dituzte, bost gunetan informazio panelak jarri; tartean, Garaioiko informazio gunean eta Mendixurko parke ornitologikoko aparkalekuan daude jarrita. Horietan, urtegiari, haren eraikuntzari eta eragindako herriei buruzko informazio orokorra jaso dute.

Mendixurren bizi den Fernando Sanchezek nabarmendu du urtegia eraikitzearen ondorioz Ganboako udalerria desegin egin zela, eta Lautadako Burguko eta Barrundiako eta Gorbeialdeko Arratzua-Ubarrundiako ondoko udalerrien artean banaturik geratu zela: "Herri batzuk, Mendizabal eta Zuhatzu Ganboa, urperaturik geratu ziren; eta beste batzuk jendez hustu ziren lurrik gabe geratu zirelako, hala nola, Azua, Larrintzar, Garaio eta Langara Ganboa. Marieta eta Mendixur herriek iraun zuten, baina mugarteak oso murriztuta geratu zitzaizkien. Orenin, berriz, uharte bihurtu zen eta bertakoek ere herria utzi behar izan zuten". Ganboak 700 biztanletik gora zituen orduan, eta 400 baino gehiagok etxea eta lurrak utzi behar izan zituzten.

Kontxi Beltran de Gebara

Horien artean, Kontxi Beltran de Gebara dago. Hamabi urte zituen berak "kalteordain eskasa jaso" eta derrigortuta Garaion zuten etxea utzi behar izan zuten: "Oso txarto pasa genuen, gehienbat gurasoekin". Gogoan du oraindik garai hartan amama gaixorik zegoela eta idien gurdigainean koltxoi bat bota eta horrela eraman behar izan zutela Garaioetik Ozetara: "Horrelako baldintzetan eraman behar izan genuen; oso gogorra izan



Eraña familia Garaioetik Ozetara joan behar izan zen. ERAÑA FAMILIA

KONTXI BELTRAN DE GEBARA ETA RUFINO UGALDE KALTETUEK OROITZAPENAK GOGORARAZI DITUZTE

zen. Bestalde, Gasteizera joan beharrean, Ozetara joan ginen amama bertakoa zelako eta jaioterrira itzuli nahi zuelako, eta han ere nekazariak izaten jarraitu genuen".

Jaioterrian bizi izandakoaren oroitzapen onak baino ez ditu: "Gure etxean ez genuen argindarrik, ezta urik ere, baina oso zoriontsuak ginen". Horrekin batera, bertako bizilagunek zuten harreman berezia ere azpimarratu nahi izan du Beltran de Gebarak: "Oso herri txikia zen, oker ez banago bederatzi bakarrik bizi ginen han, eta genuen harremana oso berezia zen; familia bat bezalakoa ginen. Beti bata besteari laguntzeko prest", gogoratu du.

Garaio uztean, batzuk Gasteizera lekualdatu behar izan ziren; Beltran de Gebara eta Eraña familiek, berriz, Ozeta aukeratu

zuten. "Harremana izaten jarraitzen dugu", esan du. Are gehiago, azaldu du aurten izan ezik, urtero, irailean, Garaion bertan garai hartako herritarrak elkartzen direla festak ospatzeko.

Rufino Ugalde

Beltran de Gebara bezala, ume bat baino ez zen Rufino Ugalde bere gurasoekin eta beste sei anai-arrebekin batera Orenin herrian zuten etxetik kanporatuak izan zirenean: "Urtarrilaren 5a zen. Gogorra izan zen, bereziki gurasoentzako; bizitza goitik behera aldatu zitzairen: nekazariak izatetik, egun batetik bestera Gasteizera joan behar izan zuten. Kalteordainak, gainera, barregarriak izan ziren eta Kutxi kalean atondu gabe zegoen 60 metro karratuko pisu batera joan behar izan genuen", gogoratu du Ugaldek.

Urte askoan joan izan da Ugalde jaioterrira bisitatzen: "Orenin Urizar parean zegoen, 300 bat metrora; eta hortaz, herriminatik edo, askotan hurbildu izan naiz Urizarrera, eta urtegi ondoan eserita, arratsalde osoak eman ditut txikitako kontuak gogoratzen".



Langarikan okupatutako etxeak, epaiaren zain

Herritarrak gazteen aldeko sinadurak batzen hasi dira, eta "alde guztien arteko elkarrizketa" abian jartzeko deia egin dute; gazteek eraikin horretan martxan jarri nahi duten proiektuak "arnas berria" ekarri dezakeela uste dute.

Mirian Biteri LANGARIKA

Langarikako 5. zenbakiko "etxekide gazteak" kaleratzeko arriskuan daude. Herriarekin hitz egin eta gehiengoaren babesa jaso ostean, abuztuan sartu ziren hogeitau urte hutsik zeraman etxean Lautadako zein Gasteizko hainbat gazte. Eraikina txukundu zuten, bizitzeko moduan uzteko. Lau hilabete geroago, azaroaren hasieran, apezpikuaren salaketa jaso zuten, eta abenduan epaiketa izan zuten; epaiaren zain daude orain.

Egoera horren aurrean, Langarikako herritarrek gazteen aldeko sinadura bilketa hasi dute. Kaleratutako oharrean "alde guztien arteko elkarrizketa" martxan jartzearen alde agertu dira, "guztionezako onuragarria izango den akordio batera heldu ahal izateko".

Besteak beste, gogorazti dute landa eremuko populazioa zahartzen ari dela eta gazteek aurrera eramanez nahi duten proiektuak



Langarikan okupatutako etxea. ALEA

"arnas berria" ekarri dezakeela. Horrekin lotuta, azaldu dute, bere garaian, Langarikako herritarrek etxe hori egin zedin "lurrak utzi eta dirua, lan indarra eraikuntzarako materiala" jarri bazuten, eraikin honek helburu soziala eduki zezan izan zela, eta bizilagun berriek erabilera soziala eman nahi diotela.

Gaineratu dute etxea garbitu eta konpondu dutela, "lan mardula eginez", eta ez dutela inolako istilurik sortu: "Aitzitik, herrian parte hartu eta auzolanean aritzeko jarrera sendoa agertu dute".

Ildo beretik, gazteek beste idatzi bat zabaldu dute bere egotzaren berri emateko.



Pasa den urtetik dago itxita Zumarraundi bidea. ZALDUA MENDI TALDEA

Zalduondoko Zumarraundi bidea, konpontzeko bidean

Abendu hasieran lehen bilera izan zuten erakundeek; bertan, bigarrena egunotan egitekotan geratu ziren.

Erredakzioa ARAIA

Arabatik Aratz-Aizkorri parke naturaleko Urbiako zelaietara iristea ahalbidetzen duen sarbide bakarra konpontzeko auzia konpontzearekin egon daiteke. Zalduondoko alkate Gustavo Fernandez Villatek jakinarazi du abenduaren hasieran egin zutela erakundearen aldeko lehen bilera. Inplikaturako erakunde guztiak zeuden gonbidatuta: hauda, Jaurilaritza; Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Partzuergo Orokorrak; Zalduondo eta Asparreneko Udalak eta Galarretako kontzejua.

Fernandez Villatek azaldu du batzarra "oso positiboa" izan zela, eta "eskatutako baldintzak betetzeko" Zalduondok duen borondatea azpimarratu zuen. Gaineratu du bileran agerian geratu zela "informazio ekonomiko eta juridikoaren beharra, aurrera egiten jarraitzeko". Hori dela eta, bigarren bilkura bat egitekotan geratu ziren, Gabonen atarian. Horretan, besteak beste, Solabarritik Urbiarako bidea konpontzeko "aurrekontu eguneratua" izaten saiatuko dira, eta baita bidearen urteko mantentze-lanen aurrekontua ere.



DONEMILIAGAKO UDALA

Martxa onean doa Donemiliagako eraikin berria

Donemiliagan askotariko erabilera izango duen udal eraikin berria egiten ari dira. Irailean hasi ziren lanekin, eta aurreikusitako bezala baldin badoa, datorren urte hasierarako amaituta egotea espero du bertako alkate Erika Letamendik. 125 metro karratu izango

dituen solairu bakarreko eraikin hori udal ibilgailua sartzeko erabiliko da, eta baita biomasa galdarako egurra gordetzeko ere. Horrez gain, hainbat areto ere izango ditu, herrian antolatzen diren jarduerak hartuko dutenak. Aurrekontua 248.962 eurokoa da.



HODEI DEL OLMO

Burguko 'Biolortu', ikusgai

Nekazaritza ekologikoaren erreferente Gaspar Caballeroren metodoa erabiltzen duen baratze ekologiko komunitarioa du Burguk, zenbait bizilagunek mantentzen dutena. Horrekin lotuta, metodoari buruzko tailerra antolatzen dute urtero, eta baratza dagoen ingurunean bioaniztasun handiko 'Biolortu' gunea irekia sortu dute; bost zentzumenak lantzen dira bertan.



Besteak beste, Dulantziko Pitin tabernak parte hartu du bertako udal kanpainan. DULANTZIKO UDALA

Deskontu bonuak abian Dulantzin eta Agurainen

Tokiko merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan kontsumoa bultzatzea eta salmentak sustatzea dute helburu kanpainen; Agurainen, urtarrilaren 31ra arte erabil daitezke dagoeneko agortu diren bonuak, eta Dulantzin, otsailaren 28ra bitartean.

Erredakzioa DULANTZI

Covid-19aren eraginari aurre egiteko eta tokiko kontsumoa sustatzeko asmoz, deskontu bonuen hainbat kanpaina jarri dituzte martxan hilabeteotan Lautadan.

Dulantziko Udalak, adibidez, 15.596 bono jarri ditu herritarren esku, Gabonei begira, bertako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuei laguntzeko helburuarekin.

Bi bono mota eskaintzen dituzte: alde batetik, merkataritzan eta bestelako zerbitzuetan gastatzeko bideratutakoak; eta bestetik, tokiko ostalaritzari laguntzekoak. Hala, 45 euroren truke, 60 euroko erosketak egin ditzakete herritarrek.

Bonuak honako tokietan eskura daitezke: abenduaren 23ra bitartean eta urtarrilaren 7tik otsailaren 28ra arte, herriko kultura etxean banatuko dira; eta abenduaren 28tik urtarrilaren 5ean, berriz, udaletxean topatuko dituzte herritarrek.

Deskontuak askotariko tokietan erabil daitezke, denera, 19 establezimendu eta bost taberna animatu direlako kanpaina ho-

rretan parte hartzera: besteak beste, supermerkatuak, okindegiak, botika, koltxoi dendak, karrozeria, autoeskola eta al-baitari eta gasolindegia bana ere badaude egitasmoarekin bat egiten dutenen zerrendan.

Agurainen, agortuta

Beste alde batetik, Aguraingo Udalak eta Lautada Bizirik elkarteak elkarlanean, *Agurain bono* kanpaina jarri dute abian, abenduan eta urtarrilean tokiko ekonomia berrindartzeko asmoarekin. Herritarren eskura jarri eta egun gutxitan, baina, agortu egin dira 1.200 bonuak.

Kasu honetan, urtarrilaren 31ra arte gastatu ahal izango dira 15 euroko prezioan eskuraturako bonuak; horiekin 20 euroko erosketak egin ahal izango dira atxikitako establezimenduetan. Sustatzaileek ohartarazi dute erosketak bakoitzaren zenbatekoa, gutxienez, 20 euro izan behar dela bonu bakoitzeko.

Merkatarien egitasmoan parte hartzen duten establezimenduen zerrenda osoa www.agurain.com webgunean kontsultatu daiteke.

ERAKUSKETAK

Zeru bat, hamaika bide.

Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 aldian

June Crespo.

Helmets

Moyra Davey.

Lanak | Obras | Works

KBK 2020.

Ez dakit zer pasatzen den azken aldi honetan
Irekiera: 2020.12.18

JAI.

Zerbait gertatzeko derrigorrezko desbideratzea

JARDUERAK

LORATEGItik abiatuta

Zeharkako bisita gidatuen programa

Familientzako lantegiak

Artium txikia, igandero

Good Afternoon Artium!, larunbatero

ARTIUM MUSEOA

Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoa
Centro-Museo Vasco de Arte Contemporáneo

www.artium.eus



'Bakarrik taberna batean' bideoklipa Araiako Casino tabernan grabatu dute. 'BAKARRIK TABERNA BATEAN'

Garagardo bat niretzat

Emakumeak ahaldundu eta normalizatutako indarkeriak salatzen, 'Bakarrik taberna batean' bideoklipa aurkeztu dute Laia Eskolak eta Lautadako mugimendu feministak, hainbat artista eta herritarrekin elkarlanean.

Amaia Gartzia AGURAIN

Taberna batera sartu zara. Tragoa eskatu, eta zure gainean begiradak sumatzen hasi zara. Gainontzeko bezeroak gizonak ez, *matxiruloak* dira. Eta zu emakumea. Lau lerroko zertzelada hauek nahikoak dira koadroaren izenburua edo gaia hautemateko. Batez ere, emakumea bazara.

Bakarrik taberna batean bideoklipak landu duen afera da. Punk-rocka jariatzen duen mihi-se gaineko lana da, Laia Eskolak -Arabako Emakumeen Jabekuntzarako eta Berdintasunerako eskola- beste artista batzuekin zein Lautadako mugimendu feministarekin elkarlanean eginikoa. Markoa, landa eremua.

Hargatik, Araiako Casino tabernan grabatutakoa da azarora-

ren 25ean aurkeztu zen aipatu bideoklipa, emakumeen indarkeriaren aurkako eguna aitzakia hartuta.

Helburua, emakumeon berdintasun eza bistartzeko zerbitu berritzailea egitea, eta horrekin puskatzeko indarra transmititzea, nola ez, Arabako Lautadak berezkoa duen punk-rock osagaia aintzat hartuta. Osagaiok *Bakarrik taberna batean* kanta dute emaitza, La Xeta Paxote 90. hamarkadako taldeko Marta Aldama, Mamen Rodrigo Vulpess taldeko ahotsa izandakoa eta Belen Nevadok sortua. Horrez gain, Irantzu Lekue artista gasteiztarra eta Irantzu Varela ekintzaile feministak ere parte hartu dute bideoklipean.

Izan ere, emakumeak dira *matxiruloen* papera hartzen dutenak

bideoklipean. Hori zehaztu nahi izan du Nevadok: "Ez dira pertsonaia maskulinoak irudikatu, antzeztu dena pertsonaia oso konkretu bat izan da, matxiruloarena, hain zuzen". Izatez, izan dira kontrako ahots gutxi batzuk eta gizonen irudia "degradatu" egin dutela aipatu duten despistatuak.

Bakarrik taberna batean bideoklipak mikromatxismo eredu bat -askoz gehiago baitaude- erreproduzitu du, bi generoen arteko desoreka egoera salatzen. Izan ere, Lautadako mugimendu feministak nabarmentzen duenez, "taberna batean, adibidez, agerian geratzen da munduan zehar bakarrik eta beldurrik gabe ibiltzeko askatasuna genero maskulinoaren pribilegioa dela".

Egoerak, era berean, normalizatutako indarkeria bat azalarazten du, "mikro" aurizkiak ez diolako kasu honetan txikitetasun edo gutxiengo baten arazo izan daitekeen zerbitu erreferentzia egiten: "Mikromatxismoak horrela deitzen dira ez txikiak direlako, normalizatu egin direlako baizik, eta ondorioz, horrek ikusezin bihurtu dituelako", azaldu du mugimenduak.

Normalizatutako urraketa horiek salatzen edo horiekin akabatzen baliagarriak izan daitezkeen afixen hutsunea nabarmendu du, bere aldetik, Nevadok, jarrera sexistak eta arrazistak gaitzesten dituztenak. Horrelakorik gertatuz gero, emakumeek zerbitutara heltzeko aukera izan dezaten: "Uste dut horrelako kartelak edozein espazio publikotan egon beharko liratekeela, areago tabernetan".

Taberna izan da kokapena leku horrek dituen konnotazio guztiak aintzat hartuta. Garai batean tabernetara joaten ziren emakumezkoak taldean eta gehienez jota kafe bat hartzera hurbiltzen ziren. Hortik kanpo ateratzen zirenak "zerbitu bilatzen" ari ziren, Nevadok dioen legez. Lokalizazio honi jarraiki, anakronismo hau jokoz kanporago uzten du aktoreak garagardoaren asmatzaileak emakumeak izan zirela gogorarazten duenean. Eta orain, gure ahizpon asmakizuna gozatzeko lekuz kanpo sentitu behar dugu?

Bigarren desoreka bat lantzen dute: emakumearen papera ohol-tzan, kasu honetan, punk-ean. Horren inguruan sobera daki Belen Nevadok, kantaren ahotsak eta bideokliparen bultzatzaileetakoak: "Gogo handia neukan bideoklip bat egiteko erreferentzia hori ere sartzeko, izugarri maskulinizatutako mundu bat delako", Xeta Paxoteko

"ANTZEZTU DENA PERTSONAIA OSO KONKRETU BAT IZAN DA, MATXIRULOA"

"EZ DIGUTE UME IZATEN UTZI, NESKATOAK IZAN GARA HASIERATIK"

BELEN NEVADO, LA XETA PASOTE

garaiak gogoan. Punk-aren kontestatuak, orobat, amorrua eta dibertsioa uztartzen ditu, eta aldarrikapena jantzi egiten du horrela: "Hori ere garrantzitsua iruditzen zait, guk ere eskubidea dugulako gauzak era horretan adierazteko jarrera punk feminista baten bitartez".

Gaizki abesteko eskubidea

Zentzu horretan, interesgarria da aktorearen gogoeta: "Emakumeek abesten dutenean ondo abestu behar dugun ideiarekin puskatzea zen beste hausnarketetako bat. Ondo esaten dudanean erregistro zorrotz bat esan nahi dut, polita izan behar duen ahots bat, goxotasuna transmititu behar duena; hots, femininotzat hartzen den gaizki-ulerdu hori".

Musika konkretu honetan feminismoaren garapenaz galdeturik, aldaketa batzuk egon direla aitortu du musikari ohiak: "Emakumezkoen talde gehiago daude, baina ez espero ziren bezainbeste".

Antzerkia da batez ere Nevadoren alorra, nahiz eta aipatu bezala punk-aren botak jantzi zituen La Xeta Pasote taldearekin 90. hamarkadaren bukaeran. Laia eskolak eskatuta, indarkeriaren aurkako nazioarteko egunerako zerbitu egitea proposatu zitoten aktore eta musikari ohiari. Bideoklip formatua bururatu zitzaion orduan hari, "hedapen azkarra duelako, eta lau minutu eskasetan mezu bat helarazi daitekeelako".

Haatik, atzeko lan eta elkarlan handia dago, eta emaitza bideoklipa zein abestia diren arren, tailer ezberdinak egin zituzten parte hartzaileek, eta karakterizazioa azken urratsa izan da: "Taldeko lan handia egon da, eta asko eskatu diegu, oso zaila izan da pertsonaia zehatz hori mantendu zezatela eskatzea".

Horren jakitun da Nevado, "ez baita erraza, emakume bezala heziak izan garenean zerbait jarrera, keinu eta ekintza erreproduzitzea". Zergatik den galdetu zaionean, beste behin ere asmatu du artistak: "Ez digute ume izaten utzi, neskatoak izan gara hasieratik. Gona bat edukita gauza batzuk egin ditzakezu, eta praka batzuk jantzita beste zenbait, ez badaukazu berezko jarrera oso aurrerakoi bat".

Bere hausnarketarekin bat, Irantzu Lekue artistak berretsi egin du hori: "Belenen emakumezkoak gizonezko bilakatzeko asmoa, batez ere, nolabait gorputzetan transformazio puntu hori sentitzea izan da. Nola gure perspektiba aldatzen den, beste era batean jantzita edota gorputzeko postura aldatuz". *Matxirulo* gazteenarena izan da bere papera bideoklipean, ez baita adin kontua.

Ikastaroen bidez erasotzaileen paperean jarri dira emakumeak, eta horren bidez boterea kendu diete. Hori askotan egin baita historian zehar, boteredunak irrigarri utzi. Bideoklipean parte hartu duten emakumeek hala berretsi dute: "Aukera eman digu maskulinitatekin esperimentatzeko, genero maskulinoaren nagusitasuna sentitzeko, boterea sentitzeko. Espazioaren okupazio hori, konfiantza hori eta segurtasun faltua".

Urteak aurrera, inguruko feminismoan aldaketak egon izan direla baieztatzen da La Xeta Pasoteko Belen Nevadok esaten duen moduan, "egindakoa feminista ote den galdetzen didatenean. Ondo dago, nahiz eta ironikoa izan, baina zeezer aldatu denaren erakusle da". Ekimenak arrakasta erdietsi du feministen hitzetan ere: "Eragin handia izan du inguruan, eta pertsona asko ikutu ditu".

Lautadako feminismoa, amaraun bat

Ez dago Lautadako mugimendu feminista bakarra, ezta sorrera urte zehatzik ere. Bai, ordea, hastapenik eta elkarlanik. Egiatzki, emakumeek osatutako zenbait elkarte edota multzo izan dira Lautada mailan eskubideen alde lanean. Nola ukatu, hortaz, feminismoa lantzen ari zirenik edota mugimendu feminista bat ez zirenik? "Lautadan emakumeen elkarte eta taldeak aspaldidanik daude, eta adibide gisa Landa Eremuko Emakumeek bi hamarkadetan zehar urtero antolatutako jardunaldia aipa dezakegu", diote partaideek.

Amaraun baten gisan, emakumeen mugimendua saretze baten bidez eratua izan da Lautadan. Duela bi urte, Emakumeen Nazioarteko Egunean, sendotasun irudi ukazina eskaini zen Lautadan: "Gure aurreikuspen guztiak gainditu zituen egunak berak eta baita arratsaldeko mobilizazioak, gurean inoiz ikusitako mobilizazio jendetsuena izan dela esan daiteke". Zergatiengainean galdeturik, hein batean 2015eko Emakumeen Mundu Martxak utzitako arrastoa antzeman dezakegu.

Egun, hauek dira Lautadako mugimenduaren ildoak: "Ospatu" beharreko egun horietako kontzentrazioez gain, berdintasun



Agurainen, Martxoaren 8an egindako manifestazioa. MUGIMENDU FEMINISTA

martxak, hitzaldiak, literatur saioak, kale kanpainak eta bestelakoak egiten dira herriz herri. Emakume batek indarkeria matxista pairatu izanaren berri badute, egoeraz informatu, laguntza eskaini eta salaketa zein herri ekimenak antolatzen dituzte. Zenbait herritan jaietan erasoak salatzeko telefonoa eta laguntza protokoloa martxan jarri dute, eta, gainera, jaietan gauz etxera joateko laguntza eskaintzen dute.

Erakundeen arloan izan dira lorpenak. Besteak beste, Lautada mailan indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen aldeko protokoloa egin zen duela urte

EMAKUMEEN MUGIMENDUA SARETZE BATEN BIDEZ ERATZEN JOAN DA LAUTADAN

batzuk, gaur egun bigarren protokoloa indarrean egonik. Mugarri garrantzitsua izan zen, ordura arte gizarte langileek ahal zuten guztia egiten zutelako, baina protokoloak arreta hobetu du.

Azken hamarkadan Aguraingo udal barruan feminismo hitza protagonismoa hartzen joan da, kasu batzuetan benetan sinesturik bide bakarra dela berdintasun eraginkorra lortzeko. "Beste batzuetan aldiz, itsurakeri hutsa izan da, kanpora begira egun berezietan deklarazioak onartu, balkoieta pankartak jarri... baina barrura begira ezer gutxi. Hala ere positiboan ikusi nahi dugu", dio mugimenduak.

Lautadako Kuadrillan duela zazpi urte inguru Berdintasun Zerbitzua sortzeko apustua egin zen: "Dauden beharretarako nahikoa ez bada ere, aurrerapauso

bat izan da hau, indartu beharrekoa".

Nabarmentzekoak ditu ere Lautadako mugimendu feministak Laia Eskola –ekimenaren bultzatzaileetako bat– zein arestian aipaturiko Landa Eremuko Emakumeen topaketa. Haatik, instituzionalizatzearen arriskuez hausnartu du:

"Gehiegitan gertatzen den bezala, proiektu instituzionalen herri mugimenduak desaktibatzen joera izaten dute, eta mugimendu feminista zerbait bada, feminista eta herrikoa da".

Horren erakusle da topaketa hori. Ia hogeitaz emakumeek antolatuta, Kuadrillarekin elkarlanean eta adostasunez Berdintasun Topaketa izendatu zuten, herritar ezberdinen inplikazioa lortuz eta jardunaldia indartuz. Alabaina, azken urteotan beharantz egin du: "Azkenengoan, gaia oso interesgarria bazen ere –Hirigintza feminista– Lautadako gutxi egon ginen, gehienak politikariak eta kanpoko teknikariak izanik, izaera herrikoa galdu du", salatu dute mugimendutik. "Nahi gabe bada ere, proiektu hauek hierarkia bat markatzen dute neurri handi batean. Berrazterketa bat beharrezkoa litzateke guztiontzako aberasgarria izan dadin, herriaren alde egingo baitu horrek".

AGURAIN bono 15 € → 20 €

Gurearen balioa
El valor de lo nuestro

+ Info: www.agurain.eus

AGURAINgo UUDALA



Zutik dagoen dorre jauregiaren aztarnak ezagutzeko bisitaldi antzeztuak antolatu dituzte. NAIARA LOPEZ DE URALDE

Gebarako dorrean gora, iraganera jauzia

Hiru pertsonaia historikoren laguntzaz, garai desberdinetara bidaiatzeko aukera emango dute Gebarako jauregian egingo dituzten bisita antzeztuen bitartez. Lehenbiziko txangoa abenduaren 20an antolatu du Orbela enpresak.

Naiara Lopez de Uralde GEBARA Gebarako herritik 300 bat metrotara, izen bereko gaztelua kokatuta dagoen hegoaldeko muinoaren hegalean, gebaratarren dorre jauregia zenaren aztarnak antzeman daitezke. Jatorrian, elkarri lotutako eta laukian eraikitako lau dorrez osatutako multzo sendoa zen. Gaur egun,

ordea, eraberritutako dorre bat, beste bi dorre izandakoaren hormak eta guztia inguratzen duen harresia geratzen dira zutik soilik. Hasiera batean zaharkiturik eta sastrakez beteta dagoen eraikin bat dela pentsatu daitekeen arren, oraindik antzinako historiak bizirik jarraitzen du harri horien baitan, eta hori da aben-

duaren 20an antolatuko dituzten bisitetan erakutsiko dutena.

Arabako Foru Aldundiak kultura eta ondarea uztartzen dituen ekintza desberdinak antolatu ditu *Udazken honetan #KulturaSegurua* programaren barruan, eta horietako bat lehen aldiz Gebarako dorretxean egingo diren antzeztutako bisitaldiak

izango dira. Saio hauen bitartez, bisitariak iraganera jauzi egiteko aukera izango du, eta hainbat garaitako giroan murgildu ahal izango da hiru antzezleren laguntzarekin.

Orbela Ikerketa eta Ingurumen-Hezkuntza enpresaren gidaritzapean, hiru emanaldi desberdin izango dira igande honetan bertan. Lehenengo emanaldia 10:30ean izango da, bigarrena 11:45ean, eta azkena 13:00etan; eta txanda bakoitzean bost pertsona osaturiko hiru talde egongo dira gehienez. Gainera, parte-hartzaileen segurtasuna bermatu nahian, eta egun indarrean jarraitzen duten muga-neurriak direla eta, bisitaldia Barrundia-ko bizilagunei mugatuta egongo da. Gauzak horrela, "egitasmo honen helburu nagusia udal-erriko jendeari bertako ondarea

gerturatzea da", azaldu du Jone Miren Gilek, Orbela enpresako langileak.

Jarduera Gebarako herriaren amaieran hasiko da, eta poliki-poliki hiru pertsonaia historikoren laguntzaz, oraindik zutik mantentzen den dorrearen barnealdera murgilduko da, bertan antzina gertatutakoak era atsegin, arin eta entretenigarri batean azalduz.

"Ekintzaren berri eman eta handik gutxira ia leku guztiak bete ziren, horregatik, publikoaren erantzuna positiboa izatea espero dugu. Izan ere, bisita hauen bidez historia era didaktiko eta dibertigarri batean azaltzen denez, gaian adi- tuak ez diren eta adin guztietako pertsonengana iristea ahalbidetzen du", dio ardura-dunak.

**IRAGANA GOGORATU, GEROAREKIN AMESTEKO
ETA GAURKOAZ GOZATZEKO!**

ASPARRENEAN ere **EUSKARAZ**

bizi nahi dugu



Era horretan, "dena ongi joanez gero, etorkizunean, pandemiaren egoerak hobera egiten duenean, ekintza errepikatzea gustatuko litzaiguke emanaldi gehiago eginez eta kanpoko publikoari irekiz". Bisita berez gaztelaniaz egingo da, hala ere, aurkezpena euskaraz izango da, eta gero gidioan zehar garai horretan Barrundia mailan erabiltzen ziren euskarazko hitz batzuk ere sartu nahi izan dituzte, Larrea herrian bizi zen Joan Perez Lazarragakoari keinu eginez, Gilek esan bezala.

Ondarea maitatzen ikasi

Orbelako lantaldeak urte asko daramatza Lautadan ingurugiro, kultura eta turismo arloetako proiektu desberdinak antolatzen, eta oso ondo ezagutzen dituzte inguruko bazter guztiak. "Eremu hau oso aberatsa da baliabide desberdin asko dituelako, baina tamalez, ezjakintasunagatik edo, askotan ez dugu ondoan ditugun monumentuak edota horiek atzean duten historia guztia aintzat hartzen. Eta hori da, bereziki, mota honetako ekintzekin bilatzen duguna, inguruan duguna maitatzen ikastea", esan du arduradunak.

Aurretik Añanako Gatz Haranean, Portillako gazteluan edota Alaitzako elizan ere egin izan dituzte bisitaldi antzeztuak.

Hala ere, antolatzaileak mota honetako ekintza bat aurrera ateratzeko lan mardula egin behar

dela onartu du. "Denbora asko behar da gertaera historikoez ongi jabetzeko, hortik antzezlan bat sortzeko, jantziak eta bestelako *attrezzoak* prestatzeko edota gidioiak buruz ikasteko, baina guk lan hau guztia korrika eta presaka egin behar izan dugu, Gebarako jauregia proiektu honen barnean sartzearen ideia duela pare bat hilabete edo sortu baitzen. Eskerrak Ttipia antzerki taldearen eta Fernando Sanchez Aranaz historialariaren laguntza izan dugun".

Sanchez Aranazen ekarpena, gainera, oso berezia izan da Gebaratik kilometro gutxitara dagoen herrian bizi baita. "Ni Mendixurrekoa naiz, eta gaztelua zein dorretxea betidanik oso ongi ezagutu ditut", azaldu du historialariak. "Orbelatik proiektu honetan parte hartzeko deitu zidate-nean, justu gazteluaren inguruan egingo den beste ikus-entzunezko batean lanean nengoan Barrundiako Udalarekin eta Lautadako Kuadrillarekin batera, hortaz baiezkkoa gogotsu eman nien".

Historian barrena

Gebaratarrak oso familia boteretsua izan ziren Erdi Aroan Lautadan, eta XI. mendean euren izena daukan herriaren muinoaren gailurrean gaztelua eraiki zuten, Postaseko Errege Bidetik egiten ziren joan-etorriak hobeto kontrolatzeko asmoarekin. Urte batzuk beranduago, XIV. mendean, lau dorretxe zuen jauregia

egin zuten muino beraren oinetan. "Antzinako dokumentuetan agertzen denaren arabera, garai horretan erregeek soilik izan zezaketen lau dorreko jauregi bat, beraz familia hark zuen eragina noraino iristen zen sumatu dezakegu. Horregatik, aro haietan hobe zela Gebaran jauntxoia izatea Espainian erregea izatea baino esaten zutenak ez zeuden bategere oker!", barrez dio historia-gileak.

I. Karlistaldian, ordea, zorigaitza iritsi zen herrira. "2.500 kilo bolbora erabilita, jauregia eta gaztelua erabat suntsitu zituzten liberalek 1839ko abenduaren 30ean egindako erasoan, defentsarako eraikitako monumentu biak hauts bilakatu. Hamarkada batzuk geroago, II. Karlistaldian, karlistak gaztelua berreraikitzen ahalegindu ziren Aguraingo harresitik harriak hartuz, baina azkenean ahalegin horiek guztiak hutsean geratu ziren. Beraz, argi dago historia luzea dagoela Gebaran. Dena dela, agian niretzat dokumenturik bitxienak bidaiariak inguru honetatik pasatzerakoan euren kroniketan idatzi zutenak dira".

"LANEAN HASI GARA KONTZERTUAK ETA BESTELAKOAK ANTOLATZEKO"

FERNANDO SANCHEZ ARANAZ



XIV. mendean eraiki zuten Gebarako jauregia. NAIARA LOPEZ DE URALDE

Orainaldira itzuliz, 1964. urtean, Aldundiak ipar-mendebaldeko dorretxea eta harresiaren zati batzuk eraberritu zituen. Hogei urte geroago, 1984an alegia, Monumentu Historiko Artistikoa izendatu zuten, eta ondoren, Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legearekin modu generikoan babestu zuten. "Gerora, bisitariak hartzeko egokitu zen, baina honakoa izango da antzeztutako bisitak egingo diren lehenengo aldia", argitu du Gilek.

Sanchez Aranazen ustetan, mota honetako ekintzak egitea oso garrantzitsua da, izan ere azkenaldian Araban ondare kultural eta artistikoa berreskura-

tzeko lan handia egiten ari bada ere, urteetan monumentu asko galdu da. "Horregatik, inguru paregabe honi balio erantsia emateko mota honetako egitasmoek jarraipena izatea asko gustatuko litzaiguke; hori dela eta, helburu horrekin lanean hasi gara jada, bertan kontzertuak eta bestelako ekintzak antolatzeke ahaleginak egiten".

Mendixurreko bizilaguna hila-bete hauetan egindako lanaren emaitza ikusteko irrikan dago. "Guztia primeran aterako dela ziur naiz, Orbelako langileak eta Ttipiako antzezleak profesional hutsak baitira", esan du historialariak. ■

Barrundiako Udala

Barrundia, txikia bezain handia!

PROTAGONISTA

"Harrituta nago 'Akelarre' filmak izandako harreraz"

IRATI SAEZ DE URABAIN AKTOREA

Estitxu Ugarte AGURAIN

Pablo Aguerok zuzendutako *Akelarre* filma urrian estreinatu bazen ere, oraindik ere zinematan dago ikusgai.

Irati Saez de Urabain (Agurain, 1998) aktore gazteak parte hartu du horretan, sorgin-ehizaren biktimetako bat den *Olaia*-ren paperean.

Pozik zaude pelikulak izandako harrerarekin?

Oso pozik. Imaginatzen nuen Euskal Herri mailan harrera oso ona izango zuela, gaia zein den ikusita eta kontuan izanda bertan eta bertako aktoreekin grabatua dela.

Hala ere, harrituta nago; oraindik ere, jendeak kalean geratzen nau zoriontzeko. Hori oso pozgarria da.

Agurainen ere estreinatu duzue. Nola hartu dute aguraindarrek?

Izugarri. Hasieran, urrian, bi pase egitea aurreikusitua genuen; baina, sarrerak salgai jarri bezain pronto agortu egin ziren. Lagun asko filma ikusteko aukera gabe geratu zirenez, azaroan berriro ere

jarri zuten beste behin, eta kasu horretan ere jarraian agortu ziren sarrerak.

Gainera, urrian, filmaren estreinaldian egon nintzenean, amaitutakoan jendea gerturatu egin zen oso gustuko izan zutela esateko.

Abiapuntura joko dugu. Nola suertatu da pelikulan parte hartzeko aukera?

Kasualitatea izan da. Topatu nuen Facebooken iragarki bat *Akelarre* pelikulan aktoreak bilatzen ari zirela, eta argazki bat eta datuak bidaltzea eskatzen zuten; eta bidali nituen, probatzeko.

Aurretik esperientzia zenuen aktore lanetan?

Ez, interpretazioan ez dut esperientziarik. Egin izan dut antzerkia urte batzuk, baina oso gauza txikiak.

Ondo moldatu zara filmazioan; zailtasun berezirik izan duzu?

Gure artean oso gustura egon gara, eta giro oso polita egon da taldean. Ni lehen momentutik oso ondo sentitu naiz haiekin; azkena izan naiz

hasten, eta oso ondo hartu naute. Egia da, batzuetan, filmazioan galduta sentitu naizela, hainbat kontu tekniko direla edo plangintza aldetik ez nituelako ezagutzen, baina, egia esan, ekipoak eta lantaldeak oso erraz jarri digute dena.

Zer paper egin duzu pelikulan?

Olaia du izena pertsonaiak. Sorginkeria leporatzen dioten neska gazte horietako bat da. Taldean pertsonaiak oso markatuak daude, eta *Olaia*, adibidez, oso pertsona alaia da, kanpora begira beti, txistek egiten dituen, oso baikorra, momentu txarretan besteak animatzen saiatzen da. Baikorra da, batzuetan gehiegi, eta eskuetatik ihes egiten dio.

Zein izan da zuretzat filmazioaren zatirik zailena?

Orokorrean pertsonaiaren garapena pentsatzea eta pertsonaia eraikitzea. Zuzendariak irizpide eta ezaugarri batzuk ematen dizkizu, baina pelikulan



Irati Saez de Urabain aguraindarra, Donostiako zinemaldian. ALEA

erakusten den pertsonaiaren atzetik badago lan bat; izaera guztia eraikitzea izan da zaila. Dena den, bilatzen zutena emakume talde bat zen, eta pelikula ikusten duen edozein identifikatzea talde horrekin edo pertsonaia horrekin, eta Pablok nahi zuena zen gutako bakoitzetik ere ekarpena egitea, gure izaera adieraztea. **Eta filmazioaren zatirik politena?** Oso gustura egon naiz, eta atsedenetan ere topera egon


gara, oso ondo; ez naiz galduta sentitu, beti egon garelako elkarrekin. Gainera, leku ikaragarriak ezagutu ditut: Sakoneta eta Laga, adibidez.

Amaitu aurretik, baduzu dagoeneko bestelako proiekturik esku artean?

Oraindik ez, baina mugitzen ari naiz zerbait topatzeko. Asmoa da interpretazioarekin eta, bereziki, antzerkiarekin jarraitzea, oso gustuko ditudalako. ■■■


Donemiliagako Udala
www.donemiliaga.eus

GOITIBEHERA



Nola jokatu? Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak. **1.** Gipuzkoako udalerria. **2.** Arabako Errioxako udalerria. **3.** Kemen. **4.** Nahastura trinkoa. **5.** Zoro. **6.** Etorkizunean. **7.** Gailen, goien. **8.** Emakume izena. **9.** Bizkaiko udalerria, Uribe Kostan.

HITZ GEZIDUNA



	Edateko gogoa	Gipuzkoako udalerria	Azkarrak
	Laborarien lanabes	Barrea	Ate, hitz elkarteetan
	* Arabako mendia		
	Aproposa		
Burua	Hobenak		
Ipar EH-n, atsekabe	Ni neu		
			Bokal biribila
			Bokala
Xakeko pieza			Estrontzioa
Ipar EH-n, bila			Dozena erdi
		(Infin.) Sartu	
		Bokalik ga-beko aldia	
... gabe, atertu gabe		Gurpilik ga-beko gurdia	
Gau denborak		50	

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNA	GOITIBEHERA
GAVUVDIAK TAIL LERA XERKAVSAR XPEROIASR XANGRINOR XERRUAK XARATZ XIGITAI XEVA	BERANGO NAGORE GOREN GERO GERO OREA ADORE MOREDA MENDARO

GAZTELU
RESIDENCIA GERIÁTRICA

Etxabbarri Urtupiña (ARABA)
945 307 059 / 666 873 600
gatzeluresidencia@hotmail.es
www.residenciageriatricagaztelu.com

Bultzatzaileak



'Lautadako ALEA' aldizkaria Lautadako Euskararen Komunitateak eta Arabako ALEAk elkarlanean garatutako proiektua da.

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio taldea S.L.
Antonio de Sucre 1
01003 Gasteiz ARABA

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar
Mirian Biteri
Estibx Ugarte
Mikel Buruaga

Komertziala

Erlantz Anda
Saio Perez de Muniain

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus
Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus
Tel.: 945 71 60 09

EGOITZA NAGUSIA

Antonio de Sucre 1, behea
01003 Gasteiz (ARABA)
Tel.: 945 71 60 09
info@alea.eus

Lege Gordailua:

VI-32-2015
ISSN: 2386-8961

Inprenta

Bidasoa inprimatzeko zentroa

Tirada: 7.000 ale

Banaketa

Tarteka Media
Lautadako Euskararen Komunitatea

HARREMANETARAKO DATUAK

LAUTADAKO EUSKARAREN KOMUNITATEA
Zapatari 31, 01200 Agurain (Araba)

lautadan.euskaraz@gmail.com
605 29 09 51

Laguntzaile publikoak



ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA saillean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileak adierazitakoen erantzukizunik. Kolaboratzaileak: Amaia Gartzia, Maiteer Sasieta, Naiara Lopez de Uralde, Juanma Gallego, Josune Garcia de Bikuña eta Iñaki Martinez de Luna.



“Azkar joan nahi baduzu,
hobe da bakarrik joatea; baina
urrun iristeko, elkarrekin hobeto.
Afrikako esaera zahar bat da,
baina hemengoa izan liteke”.

— Haimar Zubeldia
Txirrindulari profesional ohia.

Sartu badabestemodubat.eus webgunean
eta ezagutu gehiago lankidetzaren balioari buruz.



LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat